

# **EAEko ekonomiaren urteko txostena 2011**

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

**<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>**

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

[economia@ej-gv.es](mailto:economia@ej-gv.es)

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526

## AURKIBIDEA


EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA .....	1
EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA .....	7
Munduko ekonomiaren bilakaera .....	7
Analisia herrialdeka .....	10
Espainiako ekonomia .....	14
EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA .....	17
EKOIZPEN ARLOAK.....	17
Sarrera .....	17
Lehen arloa .....	18
Industria .....	19
Eraikuntza .....	23
Zerbitzuak .....	24
ESKARIA .....	27
Sarrera .....	27
Gastua azken kontsumoan .....	28
Kapital eraketa gordina .....	30
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna .....	31
LAN MERKATUA .....	36
PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK .....	44
ARLO PUBLIKOA .....	51
FINANTZA ARLOA .....	55



## EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

2011. urtean, EAEko ekonomiak ahultasun handiko irudia eskaini zuen berriro, bertako BPG erreala %0,6 baino ez baitzen hazi. Tasa hori aurreko urtekoa baino zertxobait altuagoa da, baina oso urrun dago krisiaren aurreko balioetatik. Izan ere, dagoeneko bi urtez jarraian hazkunde positiboa lortu badu ere, ezin izan du 2009an galdu zuen ekoizpena berreskuratu eta oraindik 2008an lortutako datuaren puntu batzuk beherago zegoen. Halaber, 2011. urtean zehar eskaini zuen hiruhilekoz hiruhilekoko bilakaera etsigarria izan zen, emaitza onena (%0,9) lehen hiruhilekoan lortu zuelako, geroztik moteltzeko joera bati ekiteko eta urte amaierako tasa %0,2an uzteko. Barne merkatuak beste narriadura bat erakutsi zuen eta barne eskariak balio negatiboak jaso zituen berriro, hirugarren urtez jarraian, aurreko bi urteetakoak baino txikiagoak izan ziren arren. Beraz, ekonomiaren bultzada kanpo arlotik iritsi zen, esportazioak suspertu zirelako.

**EAEko eta munduko ekonomiaren hazkundera**  
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta NDF.

Oro har, munduko ekonomiak nabarmen leundu zuen aurreko urtean lortutako hazkunde erritmoa eta 2011n gehikuntza tasa %3,9an kokatu zuen, ikuspegi historiko batean nahiko tasa altua dena, baina krisiaren aurreko urteetan eta baita 2010ean ere lortu zen %5 baino askoz

## 2011ko urteko txostena

---

beherago dagoena. Moteltze horren jatorria bai herrialde garatueta bilakaeran bai garapen bidean dauden ekonomiek izan duten emaitzetan dago. Hain zuzen ere, ekonomia aurreratuen multzoak, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) egin duen estimazioaren arabera, erdira murriztu zuen bere hazkunde erritmoa %1,6an utzi arte. Orobat, garapen bidean dauden herrialdeak aurreko urtean baino ia puntu bat eta erdi gutxiago hazi ziren. Hala eta guztiz ere, herrialde horiek lortu zuten munduko hazkundearen hiru laurdenak.

### EKONOMIA EREMUEN PISUA, HAZKUNDEA ETA EKARPENAK

	Pisua	Hazkundera	Ekarpina		Pisua	Hazkundera	Ekarpina
<b>Ekonomia aurreratuenak</b>	<b>51,1</b>	<b>1,6</b>	<b>0,8</b>	<b>Garategabeak</b>	<b>48,9</b>	<b>6,2</b>	<b>3,1</b>
AEB	19,1	1,7	0,3	Txina	14,3	9,2	1,3
Eurogunea	14,3	1,4	0,2	India	5,7	7,2	0,4
Japonia	5,6	-0,7	0,0	Errusia	3,0	4,3	0,1
Erresuma Batua	2,9	0,7	0,0	Brasil	2,9	2,7	0,1
Kanada	1,8	2,5	0,1	Mexiko	2,1	4,0	0,1
Besteak	7,4	3,2	0,2	Besteak	20,9	5,1	1,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Izan ere, Txinak %9,2ko hazkunde tasa lortu zuen, aurreko urtean jaso zuen %10,4aren aldean eta 1994tik batez beste izan duen %10,1aren aldean. Hasieran, herrialde horretako ekoizpenean bizi zen moteltzea ekonomia gehiegi ez berotzeko bertako agintariak hartu zituzten neurrien ondorioa izan zen, inflazioaren maila altua ikusita. Hala ere, urtea aurrera zihoan neurrian, bezero nagusien bultzada ezak kanpo arloaren ahultasuna ekarri zuen. Gogoratu behar da kanpo arloa izan dela Txinako ekonomiaren motorra azken hamarkadetan. Indiak ere erritmo galera garrantzitsua nozitu zuen eta 2010ean %10,6ko hazkunde tasa lortu bazuen ere, 2011n %7,2 bakarrik jaso zuen. Dena dela, garapen bidean dauden herrialdeen artean ezagutu zen moteltzerik esanguratsuenak Brasilekoa izan zen, aurreko urteko tasaren herena baino ez baitzen hazi, 2010eko %7,5etik 2011ko %2,7ra makalduta. Bertako diruaren sendotasunak eragina izan zuen esportatzeko ahalmenean eta, horren ondorioz, kapitaleko eraketa gordina kaltetuta atera zen.

Garatutako herrialdeen artean, Japoniako BPGaren beherakada nabarmendu zen, herrialdeko iparraldea martxoan txikitu zuten hondamendi naturalen ondorioz. Kalte horiek bost puntuko apaltzea eragin zuten, 2010ean lortutako %4,4tik 2011ko %-0,7ra. Orobat, AEBetan bizi zen bizitasun galera erabakigarria izan zen, 2010ean lortutako emaitza onaren ondoren (%3,0), hazkunde erritmoa %1,7ra leundu zuelako. Ekonomia horretan, jarduera publikoak (kontsumoa eta inbertsioa) 1993. urtetik lehen jaitsiera jaso zuen eta beherakada hura 1971tik inoiz izan duten handiena da. Horri familiek inbertsioan egiten duten gastuaren moteltze bizi bat gehitu behar zaio. Zorionez, familien kontsumoak tonu hedakorriari eutsi zion, enpleguaren sorrerak eta langabeziaren jaitsierak lagunduta.

### BPG ERREALAREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>5,2</b>	<b>5,4</b>	<b>2,8</b>	<b>-0,6</b>	<b>5,3</b>	<b>3,9</b>
AEB	2,7	1,9	-0,3	-3,5	3,0	1,7
Japonia	1,7	2,2	-1,0	-5,5	4,4	-0,7
Txina	12,7	14,2	9,6	9,2	10,4	9,2
Europar Batasuna	3,6	3,4	0,5	-4,2	2,0	1,6
- Alemania	3,9	3,4	0,8	-5,1	3,6	3,1
- Frantzia	2,7	2,2	-0,2	-2,6	1,4	1,7
- Erresuma Batua	2,6	3,5	-1,1	-4,4	2,1	0,7
- Italia	2,2	1,7	-1,2	-5,5	1,8	0,4
- Espainia	4,1	3,5	0,9	-3,7	-0,1	0,7
- EAE	4,4	4,2	1,3	-3,9	0,3	0,6

Iturria: NDF eta Eustat.

Moteltzeko joera leunagoa izan zen Europako ekonomietan, susperraldia ere horrelakoa izan zen bezala. Zehazkiago adierazita, 2011. urtean pairatu zen erritmo galera lau hamarrenetara (%1,6) mugatu zen. Frantziak eta, oso bereziki, Alemaniak erakutsi zuten sendotasunak eremuko beste hiru ekonomia nagusien gehikuntza tasa ahulak konpentsatzeko balio zuen. Eremuko batez besteko hazkunde tasak nolabaiteko egonkortasuna iradokitzen badu ere, hiruhilekoz hiruhilekoko bilakaerak agerian uzten du Europar Batasunean bizi zen apaltzeko joera bizia, urte hasieran %2,4ko erritmoak lortzetik urte amaieran %0,9ko tasak jasotzera igaro baitzen, ordurako herrialde batzuk berriro atzeraldian sartuta zeudela. Ekonomia eta Moneta Batasunaren ingurunean zor subiranoaren arazoari irtenbide bat emateko orduan

## 2011ko urteko txostena


---

hauteman zen eraginkortasun ezak urduritasuna areagotu zuen moneta merkatuetan, ekonomia eragileen mesfidantza, hala Eurogunean nola gainontzeko eremuetan, areagotuz. Merkatuen konfiantza berreskuratzeko asmoz Europak hersturaren alde egin duen hautuak ekonomiaren jarduera geldiarazi zuen, hasieran periferiako herrialdeetan eta gero erdiguneko herrialde batzuetan ere.


Suspertzeko bidean atzeratuago zeuden Europako ekonomiek, hala nola Espainiak eta EAEEK, aurreko urtean baino zertxobait gehiago haztea lortu zuten, baina 2011n jaso zituzten hazkunde tasak oso txikiak izan ziren. Hain zuzen ere, EAEEKo ekonomiak %0,6ko tasa eskuratu zuen urteko batez bestean, aurreko urtekoa baino hiru hamarren gehiago bakarrik dena, baina Europako batez bestea (%1,6) baino puntu oso bat txikiagoa. Beraz, bi urtez jarraian hazkunde tasa positiboak jaso diren arren, oraindik ezin izan da berreskuratu 2008ko barne produktu gordinaren maila. Enpleguari dagokionez, urteko batez bestean %0,6 gutxitu zen, hots, 6.000 lanpostu inguru desagertu ziren eta 2005. urtean zegoen enplegu mailara itzuli da. Guztira, krisiak 50.000 lanpostu baino gehiago desagerrarazi ditu Euskal Autonomia Erkidegoan.

### BPGren eta enpleguaren bilakaera EAEn

BPG. 2005 = 100



Enplegua. 2005 = 100




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.




Hirugarren urtez jarraian, EAEko ekonomiaren hazkunde osoa kanpo saldoaren portaera onari esker lortu zen. Izan ere, barne eskariak jaitsiera arina izan zuen bitartean, kanpo arloaren ekarpena zazpi hamarreneira iritsi zen. Hala eta guztiz ere, azken bi urtean hazkundearen indarren artean nolabaiteko berrosatzea hauteman da. Hain zuzen ere, 2009an barne eskariaren bat-bateko narriadurarekin batera kanpo arloak gutxienez hamabost urtean egin duen ekarpenik handiena egin bazuen, ondorengo bi urteetan barneko narriadura leundu da, baina kanpo arloak bultzada txikiagoa eman du.

### EAEko BPGari eginiko ekarpenak

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Barne eskariaren osagaien artean, kontsumo pribatuak bakarrik lortu zuen balio positiboetara eustea (%0,6), aurrezki tasaren jaitsierari esker eta lan merkatuak zailtasun handiak bizi zituen arren. Aitzitik, administrazio publikoen kontsumoak behera egin zuen (%-0,8), lehen aldiz 1993. urtetik, defizit publikoa gutxitzeko hartu diren neurrien ondorioz. Kapitaleko eraketa gordinak ere beherakada izan zuen urteko batez bestean (%-1,5), baina aurreko bi urteetakoak baino nabarmen txikiagoa. Kanpoko merkatuen bultzadak ekipamenduan eginiko inbertsioaren susperraldia lagundu zuen, eraikuntzan eginiko inbertsioak bizitasuna galtzen jarraitu bazuen ere. Kanpotik iritsi zen bultzadak esportazioen hazkundera ere lagundu zuen, termino errealetan %9,0 areagotu baitziren, azken hamahiru urteko emaitzarik onena eskuratuz.

## 2011ko urteko txostena

### EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Barneko azken kontsumoa	3,8	4,1	1,9	-2,0	1,2	0,3
Familien kontsumoko gastua	3,7	3,6	0,6	-3,9	0,9	0,6
Herri administrazioen kontsumoa	4,3	6,4	7,0	5,0	2,3	-0,8
Kapital eraketa gordina	5,9	4,6	-2,2	-15,2	-6,0	-1,5
Barne eskaria	4,4	4,3	0,7	-5,6	-0,5	-0,1
Kanpo saldoaren ekarpena(*)	-0,2	-0,3	0,5	2,0	0,9	0,7
Esportazioak	6,2	5,4	0,0	-13,2	7,6	9,0
Inportazioak	6,1	5,4	-0,8	-14,9	5,5	7,4
<b>BPG (m.p.)</b>	<b>4,4</b>	<b>4,2</b>	<b>1,3</b>	<b>-3,9</b>	<b>0,3</b>	<b>0,6</b>
Lehen arloa	-4,4	0,0	-6,1	-5,5	24,7	-7,6
Industria	4,2	3,1	-0,6	-12,7	1,8	2,1
Eraikuntza	4,2	11,3	-5,8	-7,4	-9,8	-5,3
Zerbitzuak	4,5	4,1	3,3	-0,1	0,6	0,9
Merkatuko zerbitzuak	4,8	3,9	2,5	-0,9	0,1	0,9
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	3,3	4,8	6,9	3,9	2,8	1,1
Balio erantsi gordina	4,3	4,4	1,2	-4,3	0,1	0,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,8	2,8	2,3	-0,2	2,0	0,2

(\*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena chuneko puntutan.  
Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik, berpizte handiagoa hauteman zen industrian, ekonomiaren bultzagilearen papera bereganatu baitzuen, eta zerbitzuetan, hala merkaturatzen direnetan nola merkatura zuzentzen ez direnetan. Berriro ere, kanpotik egin zen EAEko ekoizkinen eskariak bertoko enpresen balio erantsia handitzea ahalbidetu zuen, nahiz eta oraindik krisiaren aurreko urteetan lortu zena baino askoz maila apalagoa den. Espainiako merkatuaren ahultasunak, oraindik EAEko enpresentzat garrantzitsuena baita, industriaren susperraldi osoago bat eragotzi zuen. Zerbitzuek, berriz, gehikuntza tasa apala (%0,9) lortu zuten, baina BPGarena baino zertxobait handiagoa. Bai kontsumoari lotutako zerbitzuek bai enpresen beharrak asetzeko bideratuta daudenez beren balio erantsia hobetu zuten. Orobat, zerbitzu publikoak %1,1 hazi ziren, gastu publikoa gutxitu zen arren, murrizketak funtzionamenduko gastuetan fokatu zirelako, langileen gastuetan baino gehiago. Azkenik, eraikuntzak beherakada handiko

laugarren urtea kateatu zuen eta ez du suspertzeko inolako zantzurik erakusten etxegintzaren atalean, obra publikoan murrizketa garrantzitsu bat gauzatu den bitartean.

Barne produktu gordinaren gehikuntza tasa txikiak eta enpleguaren galerak produktibitatearen irabaziaz %1,2an kokatu zuten, bigarren urtez jarraian, azken hamabost urtean batez beste lortu den balioetik (%1,0) hurbil. BPGaren deflatoreak ere aurreko emaitza (%1,6) berdindu zuen, kontsumoko prezioak oso nabarmen igo ziren arren. Energiako ekoizkinen garestitzeak, bereziki petrolioarenak, eta zerga zein araututako prezio batzuen igoerak KPI indizearen batez besteko emaitza %3,1ean kokatu zuten.

### EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (EB27=100)	134,2	136,5	134,7	134,5	132,5	132,9
BPG erreala merkatu prezioetan	4,4	4,2	1,3	-3,9	0,3	0,6
Enplegua	2,2	2,8	0,3	-3,5	-0,9	-0,6
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	2,1	1,4	1,0	-0,4	1,2	1,2
BPG nominala merkatu prezioetan	7,8	7,6	2,3	-5,4	1,9	2,3
BPGren deflatorea	3,3	3,2	0,9	-1,6	1,6	1,6
KPI (urteko batez besteak)	3,4	2,8	4,1	0,3	1,7	3,1
Kostu guztiak langile bakoitzeko	5,6	4,1	4,7	2,9	1,5	0,6
Langabezia tasa	4,1	3,3	3,8	8,1	9,2	10,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

KPIaren igoera negoziazio kolektibora igaro zen, soldaten batez besteko gehikuntza %3,6an adostu baitzuen, azken hiru urteko altuena. Hala eta guztiz ere, praktikan, igoera horrek oso eragin mugatua izan zuen. Izan ere, INEk soldaten kostuez prestatzen duen estatistikak %0,2an kokatu du 2011ko batez besteko gehikuntza. Kostuak %0,6ra iristen dira enpresarentzako beste kostuak (bereziki irazitzearen ordainketak) kontuan hartzen direnean. Kostuek izan duten apaltze hori bat dator iaz lan merkatuak izan zuen narriadurako egoerarekin. Izan ere, langabezia tasa %10,8an kokatu zen, Europako batez bestea zertxobait gaituz, baina Espainiako tasaren erdian.

## EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

### Munduko ekonomiaren bilakaera

2011. urtea gogoratzean, bereziki asaldagarria izan zela etorriko zaigu burura, finantza arriskuak, burtsakoak eta fiskalak oso nabarmen areagotu zirelako herrialde garatuetan. Aldi berean, natura hondamendiek (Japonian martxoan nozitu zuten tsunamia), Afrikako iparraldean eta Ekialde Ertainean bizi ziren tentsio geopolitikoek eta inflazioaren presio handiagoek garapen bidean dauden ekonomien hazkunde erritmoa kaltetu zuten. Izan ere, NDFren lehen estimazioen arabera, munduko BPG %3,9 hazi zen 2011. urtean, aurreko urtean baino ia puntu bat eta erdi gutxiago.

#### EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK


	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011
Mundua	5,3	3,9	3,7	4,8	---	---
ELGE	3,1	1,9	1,9	2,5	8,3	8,0
AEB	3,0	1,7	1,6	3,2	9,6	8,9
Japonia	4,4	-0,7	-0,7	-0,3	5,1	4,6
EB 27	2,0	1,5	2,1	3,1	9,7	9,7
Alemania	3,7	3,0	1,2	2,5	7,1	5,9
Frantzia	1,5	1,7	1,7	2,3	9,8	9,7
Erresuma Batua	2,1	0,7	3,3	4,5	7,8	8,0
Italia	1,8	0,4	1,6	2,9	8,4	8,4
Espainia	-0,1	0,7	2,0	3,1	20,1	21,7
Garapen bidean dauden herrialdeak	7,5	6,2	6,1	7,1	---	---
Asia	9,7	7,8	5,7	6,5	---	---
Txina	10,4	9,2	3,3	5,4	---	---
Hego eta erdialdeko Amerika	6,2	4,5	6,0	6,6	---	---
Trantsizioan dauden herrialdeak	4,5	5,3	5,3	5,3	---	---

Iturria: ELGE, NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.


Hala eta guztiz ere, azaleratzen ari diren ekonomiek, Asiako ekonomiak lidergoan zeudelarik, indartsu haztea lortu zuten. Ekonomiaren egoera orekatuak, barne eskariak erakutsi zuten sendotasunak eta abiapuntuaren maila altuak hazkunde tasak sendoak eta garrantzitsuak izan zitezela ahalbidetu zuten. Ekonomia aurreratuek, berriz, igoera apalagoak izan zituzten eta abiadura ezberdinetan mugitu ziren. Dena dela, bai multzo batean bai bestean moteltzeko joera garbia hauteman zen aurreko urteko hazkunde erritmoaren aldean.

**Barne produktu gordina**  
Urte arteko aldakuntza tasak


Ekonomia garatuak




Azaleratzen ari diren ekonomiak



Europar Batasuna



AEB



Iturria: NDF eta Eurostat.

## 2011ko urteko txostena

---

Izan ere, azaleratzen ari diren ekonomiak dira, XXI mendea hasi zenetik, munduko eremu dinamikoena. Zehazkiago adierazita, aurreko mendeko azken hamarkadan ekonomia aurreratuen BPG batez beste %2,8 eta garapen bidean daudenena %3,9 hazi ziren bitartean, 2000-2010 epealdian batez besteko tasak %1,6 eta %6,3 izan ziren, hurrenez hurren. Bi eremu horien arteko aldea 2011. urtean ere gertatu zen. Azken hamaika urteko hazkunde biziak oso nabarmen areagotu du azaleratzen ari diren herrialdeen partaidetza munduko barne produktu gordinean eta, halaber, munduko ekonomia jardueraren bultzagile nagusi bihurtu dira. Hain zuzen ere, 1980. urtean munduko BPGaren %31 ekonomia horietan sortu zen, baina 2011. urtean beren pisua %48,9ra iritsia zen. Garapen bidean dauden ekonomien artean, guztizkoaren ia %30 Txinak ekarri zuen, bere pisua BPG osoan %14,3ra iritsi delarik. Ondoren, baina urrun samar, India (%5,7), Errusia (%3,0) eta Brasil (%2,9) daude.

Ekonomia aurreratuen multzoak, berriz, ez zuen horren hazkunde tasa handirik jaso, baina azken hamar urteko batez bestearen inguruan kokatu zuten gehikuntza tasa. Finantza merkatuen eta finantzen ezegonkortasunak, bereziki Eurogunea kaltetu baitzuen, eta munduko merkataritzaren erritmo galera biziak %1,6ra gutxitu zuen eremu horren 2011ko hazkunde tasa, aurreko urteko emaitzaren erdia baita. Hala eta guztiz ere, eremu garatu guztiek hazkunde tasa positiboak lortu zituzten, barne produktu gordinaren gehikuntza abiadura ezberdinetan gauzatu bazen ere. Paradoxikoki, Eurogunea, zor subiranoaren krisiak epizentroa bertan eduki arren, %1,5 hazi zen, hots, 2010ean baino lau hamarren bakarrik gutxiago. AEBak, ordea, aurreko urtean baino 1,3 puntu gutxiago hazi ziren eta %1,7an kokatu zuten BPGaren gehikuntza tasa 2011n.

Prezioei dagokienez, ez zen alde handirik hauteman eremu bakoitzaren bilakaeran. Izan ere, ekonomia eremu ia guztietan KPIaren gehikuntza aurreko urtekoa baino handiagoa izan zen. Hala ere, igoera hori nabarmenagoa izan zen garapen bidean dauden herrialdeetan, non ekonomiaren hazkunde erritmo sendoak eta bertako barne eskarien bizitasunak KPIa gorantz bultzatu baitzuten.

### Analisisa herrialdeka

2011. urtean, Txinako BPG %9,2 hazi zen eta 5,87 bilioi eurora iritsi. Diru kopuru horri esker, Txina munduko bigarren ekonomia nagusi gisa finkatu da, AEBen atzean, urtebete bat lehenago Japonia aurreratu eta gero. Hain zuzen ere, inbertsioaren, bereziki aktibo finkoetan

(%23,8) eta eraikuntzan (%27,9), eta kontsumo pribatuaren bultzadak barne eskaria areagotu zuen. Halaber, esportazioek sendotasunari eutsi zioten –erritmoa galdu bazuten ere- eta, horren ondorioz, bi eskariek ekonomia jarduera areagotu zuten. Prezioen igoerak bakarrik lausotu zuen bilakaera on hori. Izan ere, Txinako gobernuak berau kontrolatzeko ahaleginak egin bazituen ere, KPIaren 2011ko balantzea %5,4 izan zen, hots, aurreko urtean jasotako tasa baino bi puntu luze handiagoa eta azken hamalau urteko tasarik gorenetakoa bat. Aitzitik, langabezia tasak jarraipena eman zion 2009an hasi zuen emeki-emeki jaisteko norabideari eta beste hamarren bat jaitsi zen, %4,0an kokatu arte, garapen bidean dauden ekonomien artean dagoen tasa apalenetakoa bat delarik.


Aurreko urtean lortu zuen %3,0ko hazkunde sendoaren ondoren, AEBen ekonomia jarduerak moteltze garrantzitsua izan zuen 2011. urtean eta %1,7ra mugatu zuen ekonomiaren gehikuntza tasa, azken hamarkadan jasotako batez bestetik hurbilago dagoen emaitza bat baita. Nabarmendu behar da hazkundearen osaera orekatuagoa izan zela, zeren eta, aurreko urtean kanpo arloak BPGari hamarren batzuk kendu bazizkion, 2011n bi eskariek ekarpen positiboak egin zizkiotelako hazkundeari. Izan ere, kontsumo eta inbertsio pribatuen sendotasunak, azken honek osagai guztiak tasa positibotan amaitzea lortu baitzuen, kontsumo publikoak 1971tik inoiz izan duen jaitsierarik handiena konpentsatu zuen eta barne eskaria bultzatu. Orobat, esportazioen bilakaera onari esker kanpo arloak hamarren bat ekarri zion BPGari. Hala ere, lan merkatuaren bilakaerak oso protagonismo nabarmena izan zuen. Krisi ekonomikoan langabeen kopurua bikoiztu eta gero -2007an, 7.000.000 langabeko langa gutxigatik gaingitu zen eta 2010ean, berriz, kopurua 15.000.000ra hurbildu zen-, 2011. urtean goranzko joera galgatzea lortu zuten eta langabezia tasa %9,0tik behera kokatu zen. Azkenik, KPI %3,2ra igo zen, lehengaien eta petrolioaren salneurri garestiek bultzatuta. Tasa hori aurreko urtekoaren bikoitza da eta azken hamabi urteko gorenetarikoa.

Japonia izan zen urte horretako ekonomia kaltetuena. 2011ko martxoan, herrialdea hondatu zuen tsunamiak lantegi kopuru garrantzitsu bat suntsitu zuen eta beste askoren ekoizpen kateak baldintzatu. Horren ondorioz, esportazioek, herrialde horretako BPGaren bultzagile nagusia baita, hazkunde hutsala jaso zuten. Halaber, kontsumo pribatuak kalte horiek nabaritu zituen eta ez zuen hazkunde positiborik lortu. Bestetik, inbertsioak behera egin zuen. Aurreko guztiaren ondorioz, bertako BPG %0,7 gutxitu zen. 2011ko ekitaldian, Japoniako ekonomia deflazioan egon zen. KPI indizea %0,3 jaitsi zen 2010eko emaitzaren aldean. Beraz, hirugarren urtez jarraian ezin izan zuen kontsumo prezioetan tasa positiborik lortu. Azkenik, langabezia tasa puntu erdi bat murriztu zen, %4,6ra arte. Horren ondorioz, langabeen kopurua 2.800.000 lagunengatik murriztu zen.


# 2011ko urteko txostena

## BPGaren bilakaera zenbait herrialdetan Urte arteko aldakuntza tasak


Frantzia




Alemania




Erresuma Batua




Japonia



India



Txina



Iturria: NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.



Europar Batasunaren barruan, portaera kontrajarriak hauteman ziren, herrialde bakoitzeko finantza publikoen narriadura mailaren arabera. Izan ere, Europar Batasuneko herrialde kide berriek bizitasun handia eskaini zuten bitartean (Estonia %7,6, Lituania %5,9, Letonia %5,5 eta Polonia %4,3), Alemaniak (%3,0) eta Frantziak (%1,7) egonkortasuna erakutsi zuten eta beste herrialde batzuek hazkunde txikiak eta baita negatiboak ere izan zituzten. Azken hauen artean, zor subiranoaren krisiak gehien kaltetu zituen periferiako herrialdeak nabarmendu ziren. Emaitza txarrenak Grezian (%-6,9) eta Portugalen (%-1,6) jaso ziren, Espainian eta Irlandan emaitzak zertxobait hobeak izan ziren bitartean, nahiz eta beren hazkunde tasak (%0,7 bietan) eremuko txikienetakoak izan ziren.

2011 urte ona izan zen Alemaniarentzat. Aurreko urtean lortu zuen %3,7ko gehikuntza tasa bikainaren aldean erritmoa galgatu bazuen ere, 2011n jaso zuen %3,0 hori 1992an herrialdea berriro batu zenetik inoiz izan duen hazkunde tasarik gorenetakoa bat da. Kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren sendotasunak eta esportazioen bultzadak ekonomia orekatu eta sendo bat erakutsi zuten. Frantzian, hazkundera barne eskariaren ekarpenean bakarrik oinarritu zen, bereziki inbertsioaren gehikuntzan, kanpo saldoak, inportazioen gorakada biziaren ondorioz, hamarren batzuk kendu zizkiolako jarduerari. Hala eta guztiz ere, bertako BPG %1,7 hazi zen eta aurreko urtekoa baino hazkunde handiagoa lortu zuten Europako ekonomia nagusi bakarretakoa izan zen.

Erresuma Batua, berriz, esportazioen bultzadan oinarritu zen %0,7 hazteko, zeren eta bai kontsumo pribatuak bai inbertsioak nabarmen egin baitzuten behera. Hazkunde tasa hori oso urrun dago azken hiru hamarkadetan batez beste lortu duen balioetatik. Italian, antzeko joera bizi zen eta hazkunde tasa %0,4an kokatu zen 2011n, hemen ere esportazioen sendotasunean oinarrituta eta kontsumo publikoaren zein inbertsioaren beherakadak konpentsatuz. Bi herrialde horietan hauteman den moteltzeko joera garbiak zalantzan jartzen du beren susperraldien egonkortasuna eta sendotasuna.

Lan merkatuaren narriadura izan zen berriro Europako ekonomiaren arazo nagusietako bat, bertako langabezia tasak, bigarren urtez jarraian, %9,7an jarraitu bazuen ere, aldaketarik gabe. Hala ere, 2011ko amaieran 23.230.000 lagun baino gehiago zeuden lanik gabe. Beraz, lau urteko epealdian langabeen kopurua 6.300.000 baino pertsona gehiagotan igo da. Beste behin ere, zor subiranoak gehien kaltetu dituen periferiako herrialdeetan igo zen gehien langabezia tasa, horietan guztietan bi zenbakiko tasak dituztela. Espainia zegoen zerrenda buruan, %21,7ko langabezia tasa batekin eta ordura arte inoiz jaso zuen tasarik gorena (1994ko %21,3) gainditua zuen.

## 2011ko urteko txostena

---

Azkenik, inflazioak goranzko joera etengabea erakutsi zuen, lehengaiak eta erregaiek izan zuten garestitzearen ondorioz. Irlandan (%1,2) eta Suedian (%1,4) izan ezik, Europako gainontzeko herrialde guztiek ikusi zuten nola inflazioa areagotzen zen, Europako Banku Zentralak helburutzat hartua duen %2 hartatik urrunduz. Izan ere, Europar Batasuneko herrialde kide berri gehienetan %4,0ko langa gainditu zen (Errumanian %5,8, Estonian %5,1, Letonian %4,2 eta Lituanian %4,1, beste batzuen artean). Hala ere, igoera garrantzitsu horiek ez ziren kide berrietara mugatu eta Erresuma Batuan inflazio tasa %4,5era iritsi zen. Aurreko guztiarengatik, Europar Batasuneko KPI indizea %3,1ean kokatu zen 2011n, azken hamar urteko baliorik gorena baita.

### Espainiako ekonomia

Espainiako ekonomiaren joera zertxobait aldenitu zen bere merkataritzako bazkideek izan zuten norabidetik eta, azken hauek ez bezala, aurreko urtean baino gehiago hazi zen. Zehazkiago adierazita, 2011n BPG %0,7 hazi zen, aurreko bi urteetan beherakadak jaso eta gero. Hala ere, hazkunde hori ez zen nahiko izan atzeratuta geratu diren periferiako herrialdeen multzotik urruntzeko eta Euroguneko zentroko herrialdeekiko hazkunde tarteak zabala izaten jarraitu zuen. Kanpo arloak, esportazioen sendotasunean eta inportazioen ahultasunean oinarrituta, kontsumoaren eta inbertsioaren beherakaden eragina konpentsatu zuen eta 2,5 puntu ekarri zizkion jardueraren hazkundeari. Eskaintzaren ikuspegitik, adar guztiek, finantza jarduerak eta aseguruak izan ezik, aurreko urteko balioak hobetu zituzten, eraikuntzak jaisten jarraitu bazuen ere.

Lan merkatua izan zen, berriro, konpondu gabe geratu zen arazoa. Hain zuzen ere, 2011. urtean, lanik gabeko pertsonen kopurua %8,0 igo zen 2010eko balioen aldean. Bestela adierazita, 2011. urtean zehar 367.000 lagun gehiago geratu ziren lanik gabe Espainian. Krisia hasi zenetik langabeen kopurua %172,5 areagotu da eta 2011ko amaieran ia 5.000.000 langabe zeuden. Dena dela, enpleguak nolabaiteko hobekuntza izan zuen eta sei hamarrenetan gutxitu zuen aurreko urteko jaitsiera. Zehazkiago, industrian eta zerbitzuetan lortu ziren hobekuntzek neurri batean konpentsatu zuten eraikuntzan eta nekazaritzan galdutako lanpostuen zati bat. Hala eta guztiz ere, hobekuntza hori ez zen nahiko izan enplegu garbia sortzen hasi ahal izateko.

Prezioen bilakaerari dagokionez, Europako herrialde gehienetan gertatu zen bezala, erregaien eta lehengaien garestitzeak kontsumoko prezioen indizea gorarazi zuen. Hala eta guztiz ere, azpiko inflazioak, hots, energiako produktuak eta landu gabeko elikagaiak kontuan hartzen ez dituen indizeak –horiek baitira gorabehera handienak izaten dituztenak- joera egonkorragoa erakutsi zuen eta %1,7an kokatu zuen urteko emaitza. Indize horrek ere 2010eko datuarekin erkatuta gorakada nabarmena jaso bazuen ere, KPI orokorrak jaso zuen %3,2aren oso azpitik jarraitu zuen.

### ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006(P)	2007(P)	2008(P)	2009(P)	2010(P)	2011(P)
Azken kontsumoko gastua	4,2	4,0	1,0	-2,3	0,6	-0,7
-Familien gastua kontsumoan	4,0	3,5	-0,6	-4,4	0,7	-0,1
-Administrazioaren gastua kontsumoan	4,6	5,6	5,9	3,7	0,2	-2,2
Kapital eraketa gordina	8,0	4,2	-4,2	-16,5	-6,1	---
-Kapital finkoaren eraketa gordina	7,1	4,5	-4,7	-16,6	-6,3	-5,1
Esportazioak	6,7	6,7	-1,0	-10,4	13,5	9,0
Inportazioak	10,2	8,0	-5,2	-17,2	8,9	-0,1
<b>BPG</b>	<b>4,1</b>	<b>3,5</b>	<b>0,9</b>	<b>-3,7</b>	<b>-0,1</b>	<b>0,7</b>
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	5,5	7,0	-2,7	-1,4	-1,1	0,6
Erauzketa industriak eta manufaktura industriak	1,7	0,5	-1,7	-10,9	0,6	1,9
Eraikuntza	5,0	1,8	-0,2	-8,0	-7,8	-3,8
Txikizkako eta handizkako merkataritza	3,1	4,3	0,4	-2,4	0,9	1,5
Informazioa eta komunikabideak	2,7	3,4	1,5	-1,2	1,2	0,7
Finantza eta aseguru jarduerak	13,4	11,9	2,8	-3,8	6,6	-1,0
Higiezin jarduerak	2,2	2,8	1,9	-1,0	1,5	1,1
Jarduera prof., zientifikoak eta teknikoak	10,3	8,0	1,6	-3,1	0,4	2,5
Administrazio Publikoak defentsa, hezkuntza	3,8	4,5	5,1	2,9	1,6	1,0
Jarduera artistikoak eta olgetak	3,0	2,2	1,8	-0,3	-3,2	-1,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	3,4	1,0	-0,3	-5,4	-1,2	1,7
<b>Gogoratzekoak:</b>						
-Kontsumo prezioen indizea	3,5	2,8	4,1	-0,3	1,8	3,2
-Enplegua	3,5	3,0	-0,2	-6,5	-2,6	-2,0
-Administrazio publikoen defizita (BPG %a)	1,8	2,2	-3,8	-11,1	-9,2	-8,5

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.

Iturria: INE eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

## 2011ko urteko txostena

---

Azkenik, administrazio publikoek, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren datuen arabera, BPGaren %8,51ko defizita izan zuten 2011n eta 2,51 puntutan gaintu zuten orekatze fiskaleko helburua (%6,0). Horren ondorioz, defizita 91.344 milioi eurora iritsi zen, 2010eko 98.166 milioi euroko defizitaren aldean.

### EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA

#### Ekoizpen arloak

##### Sarrera

2011n, EAEko ekonomiak itzalak eta argiak erakutsi zituen hiruhilekoak aurrera zihoazen heinean. Batez beste, barne produktu gordina %0,6 hazi zen urte arteko tasan, 2010ean lortu zuen %0,3 hutsalaren ondoren. Hala ere, eta batez besteak nolabaiteko baikortasuna iradokitzen badu ere, 2011ko ezaugarri behinena moteltzea izan zen. Izan ere, lehen seihilekoa itxaropentsua izan zen eta krisiaren ondorengo susperraldi arina baina etengabeaz hitz egin zen. Bigarrenean, ordea, eta bereziki azken hiruhilekoan, ekonomia eragileen konfiantzak kolpe gogorra jasan zuen, ekonomia nola hozten zen eta berriro atzeraldiaren atarian nola kokatzen zen ikusi zutelako. Termino nominaletan, urte arteko hazkunde tasa %2,3 izan zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren apaltzea ekonomia aurreratu nagusiak ere bizitasuna galtzen ari ziren testuinguru batean gertatu zen. Zorpetze handiegiri lotutako arazoek eta Euroguneko herrialde askotan zor subiranoak eragin duen krisiak defizit publikoa murriztera eta beharrezkotzat jotzen ziren hersturako neurriak hartzera bideratutako prozesu bat ekarri zuten, eta horrek, azken batean, ekonomia berriro moteltzeko norabidean kokatzea ekarri du berarekin.

Ekonomiaren jarduera adarrak aztertuta, industriak eta zerbitzuek ekarpen positiboa egin zioten EAEko balio erantsi gordinaren hazkunderari 2011. urtean zehar. Aitzitik, lehen arloak eta eraikuntzak urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten. Nekazaritza eta abeltzaintzak %7,6 egin zuen behera, aurreko urtean bizitasun aparta erakutsi eta gero. Industria arloa %2,1 hazi zen eta 2011ko hazkunderik handiena lortu zuen. Kanpo eskariaren bultzadak, merkataritzako bazkideen dinamismoan oinarrituta, industriaren suspertze itxaropentsua eragin zuen, baina hiruhilekoak aurrera joan ziren heinean suspertze hori beherakada bihurtu zen. Azken urteetan bezala, eraikuntzak hazkunde tasa negatiboak jaso zituen, nahiz eta jaitsiera leundu zuen. Hain zuzen ere, 2011n %-5,3ko urte arteko tasa bildu zuen. Doikuntza izan zen ezaugarri nagusia sektore horretan eta ez dirudi epe laburrean inolako hobekuntzarik ikusten denik bere etorkizunean. Zerbitzuen adarrei dagokienez, urteko batez bestean %0,9 hazi zen 2011. urtean. Agregatu horretan oso garbi bereizten dira

## 2011ko urteko txostena

---

merkaturatzen diren zerbitzuen goranzko joera eta motelduz joan ziren merkatutik kanpoko zerbitzuena, bereziki urteko azken hilekoetan.

### EKONOMIA ARLOEN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea		Enplegua		Ekoizkortasuna	
	2010	2011	2011	2010	2010	2011
Lehen arloa	24,7	-7,6	-1,0	-3,9	26,0	-3,9
Industria	1,8	2,1	-3,6	-1,9	5,6	4,1
Eraikuntza	-9,8	-5,3	-6,9	-7,8	-3,1	2,7
Zerbitzuak	0,6	0,9	0,9	0,9	-0,3	0,0
<b>Guztira</b>	<b>0,1</b>	<b>0,7</b>	<b>-0,9</b>	<b>-0,6</b>	<b>1,0</b>	<b>1,3</b>

Iturria: Eustat.

### Lehen arloa

Lehen arloak %7,6 egin zuen behera 2011. urtean, aurreko urtean %24,7ko hazkunde tasa lortu zuen bitartean. Termino nominaletan, urte osoko hazkundea %1,0 izan zen. Nekazaritza eta arrantzaren bolumena gutxitu zenez, sektorearen igoera prezioen bidez iritsi zen osorik.

Nekazaritzaren atalean, azken ekoizpena jaitsi egin zen mahastietan, egonkortu zerealetan eta areagotu barazkietako produktuetan eta nekazaritzako gainontzeko ekoizpenetan. Prezioei dagokienez, 2011. urtean merkaturatu zen ardo kopurua zertxobait gutxitu zen, baina jasotako salneurriak nabarmen igo. Prezioen igoera horri zerealen garestitzea ere gehitu behar zaio, beste arrazoi batzuen artean, hainbat herrialde ekoizletan, hala nola Errusian, Txinan eta Indian, zoritxar klimatikoak gertatu zirelako. Horrek presioa sartu zuen merkatuan eta eskaria areagotu.

Abeltzaintzan, ekoizpenak beheranzko joera erakutsi zuen 2011. urtean zehar, nahiko orokorra jarduera horren barruan. Izan ere, ahuntz aziendan izan ezik, abeltzaintzako atal guztiek erroldak gutxitu zituzten, guztien artean txerriena nabarmentzen delarik. Prezioek gora egin

zuten atal guztietan, salbuespen bakarra arrautzak izan zirela. Hala eta guztiz ere, prezioen igoera horrek ez zuen ekoizpenaren jaitsiera konpentsatu.

Basogintzari dagokionez, 2010ean baso mozketak areagotu ondoren, 2011n nabarmen gutxitu ziren. Intsinis pinua mozteko baimena, autonomia erkidegoaren ekonomian garrantzia handiena duen baso espeziea hori baita, %13,0 gutxitu zen. Prezioak, berriz, zertxobait igo ziren, baina ikuspegi historiko batean maila apalean jarraitu zuten.

### LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

Urteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea			BEG uneko prezioetan		
	2009	2010	2011	2009	2010	2011
Nekazaritza eta arrantza	-5,5	24,7	-7,6	-12,0	16,7	1,0

Iturria: Eustat.

### Industria


2011. urtean, EAeko industria %2,1 hazi zen batez beste, aurreko urtean baino zertxobait gehiago. Emaitza horrek industria arloaren nolabaiteko suspertzeaz hitz egitea ahalbidetzen du. Hala ere, jarduera adar horrek urteko lau hiruhilekoetan marraztu zuen ibilbideak moteltze bizia erakutsi zuen eta urte amaieran bere balio erantsi gordinak hazkunde tasa negatiboa jaso zuen. Sektorea gehien lagundu zuen faktorea EAeko industriaren esportazioen helburua diren ekonomien egoera ona izan zen. Aitzitik, EAeko barne eskaria eta, oso modu berezian, Espainiako gainontzeko erkidegoetatik iritsitako eskaria dira nozitu zuen beherakadaren erantzule nagusiak.

EAeko industriak 2011. urtean zehar izan zuen apaltzea herrialde garatu gehienetan ere bizi zen. Oro har, herrialde horietan ere industriaren balio erantsiak aurreko urtekoa baino gehikuntza tasa txikiagoa jaso zuen. Zentzu horretan, EAeko industriak emaitza hobea lortu izana, 2010eko %1,8tik 2011ko %2,1era igaro baitzen, krisitik irteteko bidean atzerago egotearen ondorioa da.


# 2011ko urteko txostena

## Industria ekoizpenaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna




Alemania




Frantzia



Espainia



EAE



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eurostaten eta Eustaten datuetan oinarrituta.



**INDUSTRIAREN BILAKAERA**

Urte arteko aldakuntza tasak

	Industriaren balio erantsia						
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
EB-27	1,6	4,1	3,5	-2,0	-12,2	6,7	3,3
Eurogunea	1,5	4,3	3,7	-2,4	-13,3	6,8	3,6
Alemania	1,8	6,8	5,0	-2,0	-17,9	9,8	5,9
Frantzia	1,3	1,1	2,0	-4,3	-8,5	3,9	---
Erresuma Batua	-0,9	0,0	0,5	-2,8	-9,0	2,1	-1,9
Italia	0,9	3,9	2,8	-3,0	-15,1	7,0	1,2
Espainia	1,0	1,7	0,5	-1,7	-10,9	0,6	1,9
EAE	4,9	4,2	3,1	-0,6	-12,7	1,8	2,1
AEB (*)	3,2	2,2	2,4	-3,5	-11,4	5,4	4,1
Japonia (*)	1,5	4,2	3,0	-3,4	-21,9	16,6	-2,3

(\*)Industriaren ekoizpena.

Iturria: Eurostat eta Eustat (EAE).

Industria arloaren adierazleen bilakaerak balio erantsiaren norabide bera erakusten du. Izan ere, EAEko industria produkzioaren indizeak 2010ekoa baino batez besteko emaitza altuagoa jaso zuen 2011n, baina narriadura garbia hauteman zen urteko bigarren seihilekoan. Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera eginiko sailkapenak oso portaera ezberdinak islatzen ditu. Ekipamendurako ondasunek bakarrik erakutsi zuten bizitasun handia 2011. urtean. Gainontzeko taldeek, hots, kontsumorako ondasunek, bitarteko ondasunek eta energiak, narriadura sakona nozitu zuten eta beren hazkunde tasak 2010ekoak baino okerragoak izan ziren. IPIaren datuak industria adarren arabera aztertzen direnean, oso joera ezberdinak hautematen dira. Izan ere, aurreko urtearekiko hazkunde handienak garraio materialean eta makineria eta ekipamenduan gertatu ziren. Aitzitik, emaitza txarrenak, aurrekoekin alderatuta, metalurgian, ekoizkin informatikoetan eta elektronikoetan, eta kautxua eta plastikoan pilatu ziren.


Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak enpresarien iritziez argitaratzen duen inkestak koiunturako gainontzeko adierazleek eskaini duten portaera bera erakusten du EAEko industriarentzat. Izan ere, industria giroaren indizeari (IGI) eta ekoizteko ahalmenaren erabilerari dagozkien datuek, 2011. urte osorako, jaitsiera leunagoa erakutsi zuten, IGIaren

## 2011ko urteko txostena


kasuan, eta hobekuntza nabarmena erabilera mailan, baina oraindik 80ko baliora iritsi gabe, hori izaten baita ekipamenduko inbertsio berriak egiteko marka adierazten duen maila. Hala ere, bi kasuetan, 2011ko azken hilekoek bilakaera motelagoa erakutsi zuten.

### EAEko industria ekoizpenaren ziklo bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera Urte arteko aldakuntza tasak


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Beste urte batez, industriak lortu zituen produktibitate irabaziak tamaina handikoak izan ziren (%4,1), bereziki azken hamabost urtean, batez beste, izan duen emaitzarekin (%2,1) alderatzen bada. Hala ere, irabazi horren zati handi bat sektore horretan galdu zen enpleguari zor zaio, 2011n lanpostuen kopurua %1,9 murriztu baitzen.

### EAE-KO INDUSTRIAREN BEG-AREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak.

	2008	2009	2010	2011
BEG bolumeneko indizea	-0,6	-12,7	1,8	2,1
BEG uneko prezioetan	1,1	-18,9	3,8	5,4
Deflatoea	1,8	-7,1	2,0	3,3
Enplegua	-2,0	-9,6	-3,6	-1,9
Produktibitatea	1,4	-3,4	5,6	4,1
Industria produkzioaren indizea	-2,9	-21,4	1,6	2,1
Industria giroaren indizea	-11,1	-42,0	-20,3	-12,3
ekoizteko ahalmenaren erabilera	80,7	66,9	69,8	75,1

Iturria: Eustat.

### Eraikuntza

EAEko eraikuntzak ekarpen negatibo garrantzitsu bat egin zion berriro balio erantsi gordinari 2011. urtean, beherakada %5,3an estimatu baita. Sektore horretako hazkunde tasa negatiboak behin eta berriro agertu dira 2008. urtetik eta adierazle guztiak bat datoz narriadura horren amaiera oraindik urrun dagoela adierazteko orduan. Halaber, egoera negatiboa orokorra da arlo osoan, zeren eta ez etxegintzak ez obra zibilak ez baitzuten suspertzeko inolako zantzurik erakutsi 2011. urtean zehar. Hala eta guztiz ere, eraikuntzaren narriadura aurreko urteetako baino leunagoa izan zen.

Eraikuntza arloan ezagutu diren adierazleek balio erantsi gordinaren bilakaera bera aurkeztu dute. Alde batetik, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egin ziren etxebizitzaren salerosketek izugarritzko beherakada pairatu zuten 2011. urtean, etxebizitzaren salneurria urte horretan merkatu bazen ere. Familiek bizi zuten ziurgabetasuneko egoera, lan merkatuan dagoen segurtasunik eza eta finantza merkatuetan kreditu bat lortzeko orduan ezarri zen zurruntasuna

## 2011ko urteko txostena

---

dira etxegintzaren bilakaera txarra baldintzatu zuten faktore behinenak. Obra publikoari dagokionez, aurrekontuetako murrizketek eta administrazio publikoen defizita gutxitzeko bideratu ziren neurriek eraikuntza zibileko egitasmo asko bertan behera uztera edo atzeratzera behartu zuten.

### ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011
BEG bolumen indizea	-5,8	-7,4	-9,8	-5,3
BEG uneko prezioak	-2,2	-10,2	-9,7	-4,6
Deflatoarea	3,8	-3,1	0,1	0,7
Enplegua	-5,0	-7,9	-6,9	-7,8
Produktibitatea	-0,8	0,5	-3,1	2,7
Etxebizitzaren salerosketak	-25,6	-19,4	25,4	-20,0
Prezioa €/m <sup>2</sup>	-1,1	-4,5	-13,8	-7,8
Hasitako etxebizitzak	-31,0	-41,9	4,4	25,1
Amaitutako etxebizitzak	-9,4	-4,5	-15,3	-0,2
Bisatuak. Etxebizitzaren kopurua	-35,0	-24,6	-1,4	-8,3

Iturria: Eustat, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saila, Etxebizitza Ministerioa eta Jabetza Erregistratzaileen Elkargoa.

Arlo horretako egoera kezkarria islatzen duten beste adierazle batzuk lan merkatuarenak dira. Zehazkiago adierazita, Gizarte Segurantzako afiliazioetatik eratorritzen diren datuek azken lau urteko erregistrorik txarrenak aurkeztu zituzten 2011n eta beherakada %8,5 izan zen aurreko urteko emaitzaren aldean. Enplegu galera hori beste iturri estatistiko batzuek ere islatu zuten. Esate baterako, Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoek %-7,8ko urte arteko aldakuntza tasa estimatu zuten 2011n arlo horretako enpleguan, 2010ean baino 6.500 landun gutxiago zeudela iradokiz.

### Zerbitzuak

Hirugarren sektorearen urte arteko hazkunde tasa %0,9 izan zen 2011. urtean, aurreko urtean jasotako emaitzaren aldean hiru hamarreneko hobekuntza bat delarik. Bizkortze leun hori

merkaturatzen diren zerbitzuen portaera hobean oinarritu zen, %0,9ko gehikuntza tasa lortu zutelako. Saltzekoak diren zerbitzu horiek, gainontzeko jarduera adarrek ez bezala, nolabaiteko egonkortasuna erakutsi zuten urteko lau hiruhilekoetan zehar. Zerbitzu publikoek, berriz, nabarmen apaldu ziren eta batez beste %1,1 hazi ziren, 2010ean jaso zuten gehikuntza tasa baino puntu bat eta zazpi hamarren txikiagoa baita.

### ZERBITZUEN ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011
BEG bolumenen indize kateatua	3,3	-0,1	0,6	0,9
BEG uneko prezioak	6,5	1,8	1,0	2,9
Deflatorea	3,2	1,9	0,4	1,9
Enplegua	2,1	-0,6	0,9	0,9
Produktibitatea	1,2	0,5	-0,3	0,0
Barne merkataritzaren indizea	-4,6	-9,0	2,7	-2,5
Bidaiarien gaualdiak	-4,1	-1,3	12,6	5,3
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,88	1,88	1,88	1,89
Plazen betetze maila (ehunekoa)	44,57	41,66	43,97	46,40

Iturria: Eustat.

Merkataritzako adarra sektorearen egonkortasunetik urundu zen eta beherakada garrantzitsu bat nozitu zuen 2011. urtean. Eustatek argitaratzen duen barne merkataritzako indizeak okerrera egin zuen nabarmen epealdi horretan eta narriadura hori bai handizkakoan bai txikizkakoan gauzatu zen. Salbuespen bakarra agertu zen beheranzko joera horretan. Hain zuzen ere, handizkako merkataritzan, makineria eta ekipamenduaren salmentak erruz ugaritu ziren, baita nekazaritzako produktuen eta elikagaien salmentak ere. EAEko merkataritza arloak bizi duen egoera zaila erakusten duen beste adierazle bat 2011n galdutako lanpostuak dira, bereziki sakona txikizkako adarrean.

Analisia turismoan fokatzen bada, Eustatek argitaratzen duen establezimendu turistiko hartzaileen inkestak hazkunde zantzuak erakusten ditu jarduera adar horrentzat, nahiz eta aurreko urtekoak baino motelagoak diren. Izan ere, turisten batez besteko egonaldia zertxobait igo zen eta 1,89 egunetan kokatu. Plazen betetze maila ere handiagoa izan zen eta %46,40ra

## 2011ko urteko txostena

iritsi. Beste adierazle batzuk, hala nola gaualdien kopurua eta bidaiarien etorrera, urte arteko tasa positibotan hazi ziren, baina 2010ean baino zertxobait gutxiago. Orobat, EAEko establezimenduen kopurua zertxobait jaitsi zen eta erkidego osoko plazen eskaintza apur bat murriztu zen. Bidaiarien sarreretan hauteman zen moteltzea orokorra izan zen eta berdin nabaritu zen Estatutik etorritako turisten atalean (%3,7) nola atzerritik iritsitakoenetan (%6,6). 2010etikiko bizitasuna galdu bazen ere, Kantabriako, Gaztela-Mantxako, Nafarroako eta Kanarietako bidaiarien kopurua nabarmen areagotu zen. Nazioarteko ikuspegi batean, azpimarratu behar da AEBetatik, Kanadatik, Japoniatik eta Amerika Latinoko herrialdeetatik etorritako turisten gorakada bizia. Barnealdeak eta hiriburuek indarra galdu zuten 2011n eta kostaldeko plazen betetze mailak izan zuen igoerak konpentsatu zuen.

### ZERBITZUEN BEG-AREN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011
<b>Zerbitzuak guztira</b>	<b>3,3</b>	<b>-0,1</b>	<b>0,6</b>	<b>0,9</b>
Merkatuko zerbitzuak	2,5	-0,9	0,1	0,9
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	6,9	3,9	2,8	1,1

Iturria: Eustat.

Garraioari dagokionez, AENak argitaratu dituen datuek EAEko aireportuetako jarduera areagotu zela islatzen dute. Bidaiarien kopurua nabarmen igo zen Bilboko aireportuan eta jaitsi, berriz, Donostiako eta Forondako aireportuetan. Halaber, hiru aireportuetan handitu zen eginiko eragiketen kopurua, 2010ean egin zirenak baino askoz gehiago haziz. Bide beretik, EAEko aireportu batera iritsi ziren edo bertatik abiatu ziren salgaien bolumenak oso bilakaera positiboa izan zuen 2011. urtean zehar. Beste garraiobideei dagokienez, Euskotrenek emandako datuek erakusten dute trenen bidez eginiko garraioa egonkor mantendu zela 2011n aurreko urteko emaitzaren aldean. Gasteizko eta Bilboko tranbien lineek gorakada garrantzitsuak lortu zituzten, baina gainontzeko zerbitzuek behera egin zuten.

Zerbitzu publikoak %1,1eko urte arteko tasan hazi ziren. Tasa hori positiboa izan arren moteltze esanguratsua erakusten du osagai horren bilakaeran. Izan ere, serie historikoan, urteko datu hori 1998tik inoiz jaso den apalena da. Orobat, administrazio publikoek aurrekontuen desorekan bideratu zuten zuzenketa oso gogorra izan zen eta beraren eragina

islatuta geratu zen hiruhilekako bilakaeran. Urteko batez bestean hazkunde positiboa izan arren, azken hiruhilekoan tasa negatiboa jaso zuen, eta txikia bazen ere, aldagai horren bilakaeran estimatu den lehen jaitsiera izan zen.


## Eskaria

### Sarrera


2011ko batez bestean, EAEko barne eskariak hamarren bateko ekarpen negatiboa baina txikia egin zion BPGaren hazkunderari. Urteko lehen hiru hiruhilekoetan, ekarpena positiboa izan zen, baina urritik abendura bitarteko epealdian ezagutu ziren emaitza txarreko agregatuaren tasa negatibo hori ekarri zuten. Familien kontsumoak eta baita administrazio publikoenak ere oso nabarmen moteldu zuten gehikuntza erritmoa 2011. urtean. Kapitaleko eraketa gordinak, berriz, aurreko urteetako beherakada leundu zuen eta tasa negatiboa jaso zuen arren, azken urteetako baino txikiagoa izan zen. Ekipamendurako ondasunen inbertsioa izan zen EAEko barne eskariaren osagairik dinamikoena. Kanpo eskariari dagokionez, EAEko barne produktu gordinak kanpo arloari esker lortu zuen hazkunde txiki hori 2011n, zazpi hamarreneko ekarpena egin ziolako.

#### Barne eskariaren osagaien hazkundera

Barneko azken kontsumoa



Kapitaleko eraketa gordina




Iturria: Eustat.


## 2011ko urteko txostena

### Eskarier ekarpenak BPGari

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

### Gastua azken kontsumoan

Azken kontsumoko gastua %0,3 baino ez zen hazi 2011. urtean eta, halaber, narriadura garbiko ibilbidea marraztu zuen ekitaldian zehar. Familien kontsumoaren gehikuntzak itxura egonkorra eman zuen eta administrazio publikoen gastua izan zen apaltze bizi horren erantzulea. Hain zuzen ere, kontsumo publikoa %0,8 jaitsi zen 2011n, aurreko urtean %2,3 hazi zen bitartean. Kontsumo pribatua, berriz, %0,6ko urte arteko tasa jaso zuen, aurrekoa baino hiru hamarren txikiagoa.

Familien kontsumoari dagokionez, ekonomia orokorraz eta, oso bereziki, lan merkatuaz dauden igurikimen ezkorren ondorioz, familiek zuhurtzia erabili zuten kontsumoko erabakiak hartzeko unean. Hori horrela izanda, erosteko egitasmoak geroratu ziren gaur eguneko zalantzak argituko diren arte. Izan ere, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak osatzen duen EAeko kontsumitzailearen konfiantza indizea 80,0ko balioan kokatu zen 2011ko batez bestean, aurreko urtean jasotako 83,3ko datuaren aldean okertze arin bat erakutsiz. Beste aldetik, Espainiako Bankuak banku maileguez argitaratu dituen datuek adierazten dute kreditu pribatuen eskaria oso nabarmen gutxitu zela aurreko urteko datuaren aldean.



**ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009	2010	2011
Soldatapekoen ordainketa	7,1	5,8	-1,4	1,9	---
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	4,2	4,8	2,6	1,8	3,7
Enplegua	2,8	0,3	-3,5	-0,9	-0,6
Pentsioen kopurua (*)	1,6	1,6	1,7	1,5	1,4
Batez besteko pentsioa (*)	4,6	6,6	4,5	2,9	3,1
PFEZren diru bilketa	13,6	4,5	-12,1	3,8	6,3
Banku arteko interes tasa (urte baterako euriborra)(**)	4,4	4,8	1,6	1,4	2,0
KPI	2,9	4,1	0,3	1,7	3,1

(\*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak.

(\*\*) Hilabeteko batez besteekin osaturako urteko batez besteak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioaren, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

Kontsumitzaileen makaltasuna erakusten duen beste adierazle bat txikizkako merkataritzaren indizea da, 2011n beste narriadura garrantzitsu bat nozitu baitzuen, 2010ean itxurazko susperraldia ezagutu ondoren. Hori dela eta, adierazle horrek hazkunde tasa negatiboak pilatu ditu 2008tik. Turismoen matrikulazioari dagokionez, %27,0ko beherakada izan zuen 2011n, serie historiko osoan dagoen handiena baita.

**EGINDAKO KONTSUMOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009	2010	2011
Kontsumo pribatua (bolumeneko indizea)	3,6	0,6	-3,9	0,9	0,6
Kontsumo publikoa (bolumeneko indizea)	6,4	7,0	5,0	2,3	-0,8
IPI kontsumo ondasunak. EAE	1,5	-7,4	-14,3	0,6	-1,7
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	2,2	-4,6	-8,8	0,9	-1,4
Automobilen matrikulazioa	-0,1	-22,6	1,7	-8,8	-27,0
Barne merkataritzaren indizea (prezio finkoak)	3,1	-4,6	-9,0	2,7	-2,5
Txikizkako merkataritza (prezio finkoak)	1,8	-2,8	-3,7	-0,6	-3,8

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

## 2011ko urteko txostena

---

### Kapital eraketa gordina

Kapital eraketa gordinak %1,5eko jaitsiera izan zuen 2011. urtean. Aldakuntza tasa horrek moteltzeko joera seinalatzen du 2008an hasi zen narriadura prozesuan. Barne eskariaren osagai horren barruan, oso bestelako bi portaera hauteman dira. Alde batetik, eraikuntzak beherakada handiak jasotzen jarraitu zuen, doikuntza epe laburrean amaituko den inolako zantzurik erakutsi gabe. Ekipamenduko ondasunen osagaiak, berriz, gorakada garrantzitsua izan zuen 2011. urtean, kanpo merkatuaren bizitasunak lagunduta.

Eskura dauden adierazleek baieztatzen dute EAEko inbertsioaren bilakaera hori. Izan ere, industria produkzioaren indizeak, ekipamendurako ondasunen atalean, gorakada esanguratsua izan zuen, hala garraio materialaren taldean nola makineriarenean. Ekipamendurako ondasunen inportazioek, berriz, nolabaiteko moteltzea erakutsi zuten aurreko urteko emaitzaren aldean. Beste aldetik, zama ibilgailuen matrikulazioak %20,0aren inguruan murriztu ziren eta inbertsioaren ifrentzua erakutsi zuen, familien eskariari lotuago dena.

Enpresarien igurikimenez 2011n esportazioetan eta atzerriko merkatuen bizitasun handiagoan jarri zuten konfiantza. Hala ere, panorama oso negatiboa izan zen barne salmentei eta enpresetan lan eskuari eusteko ahalmenari dagokionez. Enpresariak aurre egin behar izan zieten barne eskariaren jaitsiera handi bati, finantzazioa lortzeko zailtasunei eta lehiaren igoera garrantzitsu bati.

### KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2007	2008	2009	2010	2011
Kapital eraketa gordina (bolumenaren indize kateatua)	4,6	-2,2	-15,2	-6,0	-1,5
IPI ekipamendurako ondasunak:	8,2	-0,8	-22,9	-3,4	6,0
- IPI garraio materiala	8,4	5,4	-12,5	4,7	11,0
- IPI makineria	9,4	-2,0	-30,2	-5,4	13,8
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	14,5	-2,2	-34,8	13,1	-0,4
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	5,4	-41,2	-39,6	0,8	-19,8

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

**Kanpo saldoa eta lehiakortasuna**

Ekonomia jardueraren moteltzeak eragin negatiboa izan zuen munduko hazkunderen ibilbidean eta, bereziki, nazioarteko merkataritzaren bilakaeran, 2011. urtean hazkundera gutxitzeko joera bizia nozitu baitzuen. Izan ere, Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) nolabaiteko galga aurreikusia zuen 2011ko merkataritzaren hedapenean, baina ekonomiak jaso zituen kolpe ugariak espero zena baino gehiago gelditu zuten hazkundera. Hain zuzen ere, munduko merkataritza %5,0 hazi zen 2011n, aurreko urtean %13,8 emendatu eta gero.

**Ondasunen esportazioak**  
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

## 2011ko urteko txostena

---

Libiatik iristen diren petrolio hornidura eten izanak, Thailandian hondamendia utzi zuten uholde handiek eta Japoniak bizi zituen lurrikara eta tsunamiak horniduren munduko kateak oztopatu zituzten eta ekonomia eremu guztien esportazio mailan oso eragin nabarmena izan zuten –osagaien bidalketak gutxitu zirenez, esportatzen diren ondasunen ekoizpena galgatu zen-. Izan ere, garapen bidean dauden herrialdeen esportazioak %5,4 hazi ziren, hots, 2010. urtean baino bederatzi puntu eta erdi gutxiago. Dena dela, herrialde horien merkatu kuota berriro handitu zen eta munduko esportazio guztien ia %34ra iritsi zen, duela bost urte zeukatena baino zazpi puntu handiagoa baita. Berriro ere, Txinatik eta Indiatik iritsitako salmenten dinamismoak eremua bultzatu zuen, hurrenez hurren, %20,3 eta %35,0ko hazkunde tasak izan zituztelako.

Lehenago aipatu diren gertaera latz horiek ez ezik, merkataritzako bazkide nagusien barne eskarien ahultasunak ere kaltetu zituen herrialde aurreratuak, moteltzeko joera areagotuz. Zehazkiago adierazita, herrialde aurreratuetatik iritsi ziren esportazioak %4,7 hazi ziren, hots, 2010ean baino zortzi puntu gutxiago. Salmenten gehikuntza tasa txikiagoak munduko salmenten partaidetzan duen pisuaren beste jaitsiera bat ekarri zuen berarekin, garapen bidean dauden herrialdeek bereganatu baitzuten.

Hala eta guztiz ere, Europar Batasunak munduko hornitzaile nagusiaren tokiari eutsi zion, merkatu kuotaren %34,1 bereganatuta, eta aurreko urtean baino hazkunde tasa biziagoa lortu zuten eremu bakanetako bat izan zen. Izan ere, eremua osatzen duten herrialde guztiek gehikuntza tasa positiboak lortu zituzten. Paradoxikoki, bertako finantzen egoera oso zaila zen arren, Greziatik bidalitako esportazioak azpimarratu behar dira (%42,6), ordura arte inoiz lortu zuten gehikuntza handiena izan baitzuten. Orobat, Europar Batasuneko salmentetan pisu handiena duten herrialdeen salmentak ere nabarmendu behar dira (Alemania %17,1, Italia %17,1, Herbehereak %14,9 eta Frantzia %14,0). Aipamen berezia merezi du Japoniako esportazioen bilakaera, martxoan natur hondamendia nozitu zuen arren eta uda aurreko hilekoetan salmentak gutxitu ziren arren, 2011n lortutako balantzea azken hogeitaz bestearekin bat etorri zelako.

EAEko kanpo merkataritzak ez zuen kalte berezirik nozitu merkataritzako bazkide nagusien barne eskariekin izan zuten hazkunde erritmo apalagoaren ondorioz eta zertxobait gehitu zuten esportazioen maila. Izan ere, EAEko salmentak %20,1 hazi ziren eta 21.000 milioi euroko langa gaudituz. Gorakada horri esker, esportazioak finkatu ziren, 2009ko beherakada garrantzitsuen ondoren. Halaber, azken hogeita bost urteko edozein hazkunde tasa gaudituz, salbuespen bakarra 1994an lortu zen gehikuntza aparta delarik. Inportazioak, berriz,

%12,1 areagotu ziren, kontsumo pribatuaren gelditasunak eta inbertsioaren jaitzierak baldintzatuta. Aurrekoaren ondorioz, eta kontuan hartuta salmenten balioak erosketena gaintitu zuela, EAEko merkataritza superabita ia 4.000 milioi eurora iritsi zen, serie historikoan aurrekaririk ez duen maila bat delarik. Energiatz bestelako merkataritzaren bilakaera ez zen horren positiboa izan eta bai esportazioek bai inportazioek hazkunde erritmoa moteldu zuten. Dena dela, biak bi zenbakitan hazi ziren eta merkataritzako superabitak 7.500 milioi euroak gaintitu zituen.

### ONDASUNEN MERKATARITZA ATZERRIAREKIN

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2006	2007	2008	2009	2010	2011(*)	Milioi € 2011 (*)
<b>Esportazioak</b>							
Guztira	16,4	14,6	6,3	-26,3	19,6	20,1	21.076,7
Ez-energetikoak	14,1	14,7	4,9	-25,9	19,3	16,7	18.707,5
Energetikoak	51,4	12,5	22,6	-30,5	22,7	55,9	2.369,3
<b>Inportazioak</b>							
Guztira	20,2	8,2	6,4	-38,9	25,5	12,1	17.110,2
Ez-energetikoak	14,6	14,1	-0,8	-38,2	26,0	11,7	11.108,4
Energetikoak	32,9	-3,2	22,9	-40,1	24,6	13,0	6.001,8
<b>Saldoa</b>							
Guztira (milioi €)	-830,7	170,1	161,4	2.650,9	2.445,0	3.966,6	3.966,6
Ez-energetikoak (milioi €)	3.810,3	4.452,4	5.429,1	5.628,9	6.180,1	7.599,1	7.599,1

(\*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.


2011n, bigarren urtez jarraian eta serie historikoan inolako aurrekaririk gabe, ekonomia eremu guztietara bidalitako salmentak areagotu ziren. Azpimarratu behar dira herrialde aurreratueta bidalitako esportazioen bizitasun handia, Frantziako (%36,6), Japoniako (%29,0) eta Alemaniako (%25,4) merkatuetatik egin ziren erosketak buruan zeudela. Saldutako ekoizkin motari dagokionez, berriro ere gehien saldu zirenak ekipamendurako ondasunak eta metal arruntak izan baziren ere, beren ehunekoa zertxobait jaitsi zen produktu mineralen eta energetikoen esportazioek izan zuten gehikuntzaren ondorioz, %55,9 areagotu zirelako, eta baita plastikoa eta kautxuarena ere (%37,6). Bi atal horiek salmenta guztien %20 baino gehiago

## 2011ko urteko txostena


bildu zuten. Inportazioei dagokienez, produktu mineralek eta metal arruntek erosketen bilakaera baldintzatu zuten.

### Ondasunen esportazioak eta inportazioak ekoizkin motaren arabera Ehunekoa

Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat. 2011ko datuak. Behin-behinekoak.

Europar Batasunak bizi zuen ekonomia jardueraren moteltzeak ez dirudi kalte egin zienik EAeko eragileei egin zizkieten eskaerei. Izan ere, Europar Batasuna berriro izan zen EAeko esportazioen helburu behinena, merkatu kuotaren ia %65 bereganatu zuelarik, krisia hasi zenetik mailarik gorena baita. Alemaniako eta Frantziako ekonomien egonkortasunak eremu horretara bideratutako salmentak %26,3 haztea ahalbidetu zuten, 1997tik jaso den emaitzarik onena baita. Tasa horrek adierazten du Europar Batasunak 13.686 milioi euro baino gehiago erosi dituela EAeko ekoizkinetan, ordura arte inoiz gastatu duen diru kopururik handiena baita.

Alemaniak eta Erresuma Batuak esportazio horien %20 bildu zuten, bereziki ibilgailuak, burdinaren galdaketa eta kautxua erosiz. Horren ondorioz, azken talde hori %39,7 hazi zen, gutxienez azken hamabost urtean izan duen gorakadarik handiena baita. Hala eta guztiz ere, Frantzia izan zen EAeko produktuen kontsumitzaile nagusia, salmenta guztietatik %19,6 bereganatu zuelako. Ekipamendurako ondasunen eta metal arrunten eta beren manufakturen

erosketaz gain, erregai mineralen ezohiko kopuru bat erosteak azaltzen du zergatik frantziar ekonomiak gastatu zituen 4.100 milioi euro baino gehiago EAEko produktuetan.

EAEko ekonomiaren hazkunde erritmo apalagoak Europar Batasunetik ekarritako inportazioak baldintzatu zituen, 2010ean %23,3 hazi eta gero, 2011n %7,7ra mugatu baitzuten gehikuntza tasa. Makinak eta tresna mekanikoak eta galdaketa manufaktura batzuk gutxiago erosi izanak (batez ere frantziar, italiar eta britainiar merkatuetan) igoera txikiago hori azaltzen du. Hala ere, eremuan eginiko erosketen balioa ia 8.000 milioi eurora iritsi ziren.

### EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA ETA JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi € 2011 (*)
	2006	2007	2008	2009	2010	2011(*)	
<b>Esportazioak</b>							
ELGE	16,9	9,7	4,9	-30,7	21,1	27,3	16.421,2
Europako kide berriak	26,2	29,9	7,5	-30,9	26,4	29,4	1.022,2
Europar Batasuna 27	15,9	11,2	4,5	-33,0	22,3	26,3	13.686,5
Alemania	23,3	15,6	3,6	-32,4	19,7	25,4	3.036,0
Frantzia	10,0	7,0	7,3	-29,0	23,5	36,6	4.124,7
Erresuma Batua	9,5	4,8	1,6	-36,1	22,0	21,6	1.178,0
Italia	24,1	-1,5	-3,2	-37,3	31,1	9,5	1.189,6
Errusia	55,2	44,0	50,3	-47,1	49,2	27,6	211,0
Txina	28,1	20,4	33,7	-35,0	55,9	17,4	469,9
<b>Inportazioak</b>							
ELGE	11,3	14,5	-4,3	-33,7	24,7	9,8	9.654,0
Europako kide berriak	30,5	15,6	29,7	-35,9	9,0	19,5	497,4
Europar Batasuna 27	14,3	15,1	-4,6	-37,0	23,3	7,7	7.965,2
Alemania	14,8	34,0	-12,5	-46,6	22,6	18,3	1.948,1
Frantzia	15,7	8,7	2,9	-36,5	29,4	12,2	1.751,5
Erresuma Batua	0,5	8,2	-18,7	-41,4	43,5	-2,8	753,5
Italia	8,4	18,7	-8,4	-28,7	2,1	1,9	893,1
Errusia	39,6	6,6	19,7	-47,0	36,7	15,4	2.773,4
Txina	38,0	45,9	-2,0	-36,4	24,0	3,1	906,7

(\*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

## 2011ko urteko txostena

---

Euroak balioa irabazi bazuen ere, EAeko ekoizkinen salmentak AEBetan ez zuen kalterik izan. Are gehiago, estatubatuar merkatuari eginiko esportazioak 2010eko batez bestea baino zertxobait gehiago hazi ziren (%20,1 2011. urtean eta %18,1, berriz, 2010ean). Salmenta horien osaerari dagokionez, Europar Batasuneko saskia ez bezala, AEBetako gorakadarik handiena erregai mineraletan gauzatu zen, salmenta %8,8 areagotu zelako eta epigrafe osoa %55,9 hazi zedila ahalbidetu zuelako. Hala eta guztiz ere, datu esanguratsuenak inportazioen eskutik iritsi ziren, EAeko eragileek herrialde horretan egin zituzten erosketak %67,4 areagotu zirelako. Salmentetan bezala, erregai mineralek erosketak igoarazi zituzten eta inportazioen balioa 1.300 milioi eurora iristea ahalbidetu zuten, ordura arte inoiz kontabilizatu zen bigarren daturik onena baita, 2008an lortu zen hazkunde apartaren ondoren.


ELGE erakundearen parte hartzen ez duten bazkideekin izan ziren harreman ekonomikoek ere bilakaera ona erakutsi zuten eta eremu horretara esportatutakoak 4.655 milioi euroko marka gainditu zuten. Bezero nagusiek (Errusiak, Txinak eta Brasilek) bereziki makinak eta tresna mekanikoak eta elektrikoak, eta ibilgailuak erosi zituzten. Inportazioei dagokienez, EAeko eragileek 3.770 milioi euro balio zuten produktuak erosi zituzten aipatu diren hiru herrialde horietan, baina erosketak horiek mota ezberdinetakoak izan ziren. Errusiak saldu zuten eremu osoaren %37 eta erregai mineralen hornitzaile nagusia izan zen. Izan ere, herrialde horrek hornitu zuen Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak erosi zuten erregai mineral guztiaren %41,4. Txinak bi ataletan banatu zuten bere salmenta, alde batetik metal arruntak eta beren manufakturak agertzen dira eta, beste aldetik, makinak eta tresnak, hala elektrikoak nola mekanikoak. Azkenik, Brasilen salmenta behinena burdinaren galdaketaren produktuek osatu zuten.

## Lan merkatua

Gaur eguneko krisi ekonomikoaren ondorioz, 2011. urtean EAeko lan merkatuak bilakaera txarra erakutsi zuen hirugarren urtez jarraian, baina nolabaiteko leuntzea hauteman zen narriadura erritmoan. Izan ere, 2009. urtean jaso zen enplegu galera biziaren ondoren, hurrengo urtean beherakada mugatuagoa izan zen eta 2011n berriro galdu ziren lanpostuak, baina galera txikiagoa izan zen. Bilakaera negatibo horren ondorioz, euskal autonomia erkidegoko enplegu maila 2005. urteko balioetara itzuli zen eta langabezia tasa %10,8ra igo zen, azken urteetako erregistroak gaindituz.



Enplegua aztertzen duten estatistika iturri guztiek, salbuespenik gabe, lanpostuen bilakaera txar hori baieztatu zuten, nahiz eta estatistika bakoitzean estimatu zen jaitsiera tamaina ezberdinekoa izan zen. Hain zuzen ere, hala BJAk nola BAIk okertzeko joera esanguratsua erakutsi zuten aurreko urteko emaitzaren aldean, hurrenez hurren %1,2ko eta %0,8ko beherakadak jasota. Aitzitik, bai Eustaten kontu ekonomikoek (%-0,6) bai Gizarte Segurantzako afiliazioak (%-0,7) susperraldi arin bat izan zuten aurreko urtearekiko. Orobat, aipatu diren bi inkesta horietakoak baino jaitsiera txikixeagoak erakutsi zuten.




Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

## 2011ko urteko txostena


2010. urtean bezala, enplegu galerak eragin txikiagoa izan zuen atzerritarrak biltzen dituen jardueretan. Horren ondorioz, beren enpleguak gora egin zuen berriro, baina aurreko urtean baino zertxobait gutxiago (%1,9 eta %2,2, hurrenez hurren) eta azken hamarkadaren batez bestea baino askoz ere gutxiago. Aurrekoaren ondorioz, afiliatu atzerritarrek afiliazio osoan duten pisuak goranzko joera leunari jarraipena eman zion eta serie historiko osoaren balio handiena lortu zuen, %5,7ko balioa lortuta.

### Atzerritar afiliatuen bilakaera EAEn

Urte arteko aldakuntza tasak



Afiliatu guztiekiko pisua ehunekotan



Iturria: Gizarte Segurantza.

Ekonomiaren sektoreen bilakaerari dagokionez, hiruhilekako kontu ekonomikoen arabera, zerbitzuek bakarrik lortu zuten beren enplegua handitzea, 2010. urtean ere gertatu zen bezala. Zehazkiago adierazita, eraikuntza izan zen, ehunekotan zenbatuta, enplegu gehien galdu zuen sektorea (%-7,8). Eraikuntzak lau urteko doikuntza bizia bete du dagoeneko, etxegintzaren beherakada sakonak eta obra zibilaren gelditzeak eraginda. Industriaren enpleguak ere tasa negatiboak (%-1,9) jaso zituen, baina beraren beherakada ez zen eraikuntzarena bezain gogorra izan. Are gehiago, nolabaiteko suspertzea iradoki zuen aurreko urteko jaitsieraren aldean. Dena dela, oraindik balio negatibotan jarraitzen du eta azken hiruhilekoetan okerrera egin du. Azkenik, zerbitzuek aurreko urtean lortu zuten gehikuntza tasa bera (%0,9) berritu zuten 2011. urtean, administrazio publikoek aurrekontuak doitzeko politikak indarrean jarri zituzten arren, enplegu publikoaren sorrera kaltetuz. Hala eta guztiz ere, zerbitzuen sektoreak barnean

hartzen dituen jarduerak oso ezberdinak direnez, erritmoari eustea ahalbidetu zen, ostalaritzaren, aisialdiaren eta osasun jardueren bultzadari esker, beste adar sendo batzuen artean.

Barne produktu gordina aurreko urtean baino zertxobait gehiago hazi zenez eta enplegua aurreko urtean baino apur bat gutxiago jaitsi zenez, produktibitate irabaziak aurreko urteko maila berean (%1,2) kokatu ziren 2011. urtean. Berriro ere, produktibitate irabazi horiek, neurri handi batean, industrian lortu ziren, bere eraginkortasuna %4,1 hobetu zuelako, azken hamabost urtean, batez beste, lortu duen irabazia (%2,1) nabarmen gaituz, baina oraindik enpleguaren galeran oinarrituta. Hala eta guztiz ere, portaera deigarriena eraikuntzarena izan zen, %2,7ko irabazia lortu zuelako ekoizkertasunean, arlo horretan eskuratzen dituen aurrerapenak hutsalak izaten direnean. Azkenik, zerbitzuek ezin izan zuten itxurazko produktibitatea hobetu.

### ENPLEGUA ETA PRODUKTIBITATE IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Enplegua guztira:	2,2	2,8	0,3	-3,5	-0,9	-0,6
Produktibitatea guztira:	2,1	1,4	1,0	-0,4	1,2	1,2
- Enplegua lehen arloan	-3,5	-4,2	0,0	-3,3	-1,0	-3,9
- Produktibitatea lehen arloan	-0,9	4,4	-6,1	-2,3	26,0	-3,9
- Enplegua industrian	0,5	1,8	-2,0	-9,6	-3,6	-1,9
- Produktibitatea industrian	3,7	1,3	1,4	-3,4	5,6	4,1
- Enplegua eraikuntzan	3,4	5,3	-5,0	-7,9	-6,9	-7,8
- Produktibitatea eraikuntzan	0,7	5,7	-0,8	0,5	-3,1	2,7
- Enplegua zerbitzuetan	3,1	3,2	2,1	-0,6	0,9	0,9
- Produktibitatea zerbitzuetan	1,4	0,9	1,2	0,5	-0,3	0,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

Enplegua sexuaren arabera aztertzen denean eta BJAk eskaintzen duen informazioan oinarrituta, agerian geratzen da enplegu galera gizonen kalte izan zela, berauek izaten baitira industrian eta eraikuntzan nagusiki lan egiten dutenak. Izan ere, lana zuten gizonen kopurua %2,8 gutxitu zen 2011. urtean, emakumeen kopurua %0,8 areagotu zen bitartean, zerbitzuetan gehiago lan egiteak lagunduta. Bilakaera kontrajarri horien ondorioz, bi sexuen enplegu tasen

## 2011ko urteko txostena


artean dagoen aldea berriro murriztu zen (%56,1 da gizonen enplegu tasa eta %44,4, berriz, emakumeena).

Analisia adin taldeetan fokatzen bada, adierazi behar da biztanleria gazteena izan zela, berriro ere, beherakada handienak erakutsi zituen (%-5,7). Bitarteko adinean daudenen jaitsiera ere garrantzitsua izan zen (%-3,5), bereziki kontuan hartzen bada lana dutenen multzo handi bat talde horretan metatzen dela. Azkenik, adin altuena duen taldeak bakarrik areagotu zuen bere enplegua (%2,6), neurri handi batean zaharkituagoa den biztanleria piramidearen eraginak lagunduta.


Kontratu motaren arabera, aldi baterako kontratua zuten soldatapekoen kopurua %1,6 gutxitu zen, aurreko urteko gehikuntzaren ondoren (%8,0), neurri handi batean gazteen enpleguaren, asko jaitsi baitzen, eta aldi baterako kontratazioaren artean dagoen lotura estuarengatik. Beste aldetik, kontratu mugagabea zuten soldatapekoek ere beren kopurua gutxitu zuten, aurreko urteetan bezala. Aurrekoaren ondorioz, aldibaterakotasun tasak ia ez zuen inolako aldaketarik izan 2010eko emaitzaren aldean (%20,1, aurreko urteko %20,2aren aldean).

Aldibaterakotasun tasa soldatapekoen artean  
%

EAE



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

EAEko ekonomiak 2010 eta 2011 urteetan izan zuen susperraldi leunak langile bakoitzeko batez besteko lanaldia igotzeko balio izan zuen, 2009ko jaitsiera biziaren ondoren. Hain zuzen ere, lanaldia murriztea izan zen enpresek krisiaren hasieran onartu zuten neurrietako bat enplegua gehiago ez gutxitzeko. Lehenago adierazi den bezala, ekonomiak hobekuntza txiki bat izan bazuen ere, batez besteko lanaldia krisiaren aurreko urteetan zena baino nabarmen laburragoa da oraindik. Beraz, enpresek marjina daukate langile gehiago kontratatu baino lehen lanaldia gehiago luzatzeko. Era berean, lan egindako aparteko orduak ez ziren asko izan, aurreko urteetan bete zirenekin alderatzen badira. Aitzitik, enplegua erregulatzeko dosierren eragina aurreko bi urteetako baino txikiagoa izan zen, aldizkako arrazoirengatik lan egin ez ziren orduen bilakaerak iradokitzen duenez.

### LANALDIAREN BILAKAERA

Urteko ordu kopurua

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Batez besteko lanaldia langile bakoitzeko	1.559,7	1.538,2	1.534,0	1.506,3	1.520,7	1.523,1
Aparteko orduak (*)	2.618,7	2.938,0	3.138,3	1.999,9	2.336,9	1.626,4
Huts egindako orduak langile bakoitzeko	285,2	276,7	277,3	288,3	271,0	273,0
-Oporrak eta jaiegunak	211,4	197,2	203,2	194,8	186,2	193,0
-Bestelako arrazoiak	74,0	79,4	74,0	93,6	84,8	79,9

(\*) Aparteko ordu guztiak mila ordutan neurtuta.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.


Lan merkatuan parte hartzen duen biztanleriak gora egin zuen berriro (%0,7), baina aurreko urteetan baino zertxobait gutxiago, lan merkatuaren egoera gero eta zailagoa delako. Izan ere, gizonen artean badirudi nolabaiteko etsipena hedatzen ari dela, azken urtebetean beren partaidetza %1 gutxitu zelako. Emakumeen biztanleriak, berriz, ez zion utzi lan merkatuan parte hartzeari eta %2,7ko hazkunde garrantzitsua jaso zuen. Horiek horrela izanda, emakumeek biztanleria aktibo osoaren %45,3 biltzen dute dagoeneko. Beraz, gizonen eta emakumeen partaidetza tasak hurbildu dira (lehenen %63,2an dago eta bigarrenen, berriz, %49,5ean), gizonena jaitsi delako eta emakumeena igo.

Ekonomiaren krisiak erabateko aldaketa ekarri zion lanik gabeko biztanleriaren bilakaerari, zeren eta 1995etik 2007ra bitartean, salbuespen bakarra 2003. urtea izan zelarik, langabeziak

## 2011ko urteko txostena

etengabe egin baitzuen behera. Harez geroztik, langabeen kopuruak oso nabarmen egin du gora eta 2011. urtea ez zen salbuespen bat izan (%19,0 langabe gehiago zegoen). Langabeziaren igoera horrek gizonen zein emakumeen taldeetan eragin zuen, nahiz eta bakoitzaren arrazoiak ezberdinak izan ziren. Gizonen kasuan, langabeziak gora egin zuen lanpostuak galdu zirelako. Emakumeen artean, berriz, lan merkatuan gehiago parte hartzeko nahiaren ondorioa da. Hala ere, langabeziaren bolumenak ez zien berdin eragin adin talde guztiei, zeren eta gazteen artean langabeen kopuruak behera egin baitzuen, adin tarte horretako biztanleria aktiboa gutxitu zelako. Lanik gabeko pertsonen kopurua handitu zenez eta landunen kopurua, berriz, murriztu, langabezia tasa %10,8ra igo zen, 2001. urtetik inoiz jaso ez den maila bat baita, garai hartan langabezia tasa %11,1ean kokatu zelako.

### Langabezia tasaren bilakaera EAEn



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.

Iturria: Eustat eta INE.

Arreta enplegua erregulatzeko dossierretan jarrita, azpimarratu behar da 2011. urtean oso nabarmen murriztu zirela, hala dossierren kopurua nola berauek eragindako langileena. Hala ere, bilakaera positiboa erakutsi zuten arren, krisiaren aurreko urteetan jaso ziren datuekin alderatzen badira, kopuru horiek oso altuak dira. Enpresa barruan malgutasun handiagoa erabiltzeko nolabaiteko interesa hauteman da, lanaldia murrizteko aukera gehiago erabili izanak adierazten duenez, horixe izan baitzen areagotu zen modalitate bakarra. Halaber, nabarmendu behar da irazitako espediente batek eragindako langileen kopurua ia %10 gutxitu zela.

**ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK**

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Dosierren kopurua	173	282	496	2.565	1.993	1.560
Eragindako langileak	3.338	4.815	12.794	68.722	35.426	22.072
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	4	17	108	1.170	1.051	2.203
- Behin-behineko etetea	1.704	3.856	11.216	65.574	32.349	17.991
- Kontratua amaitzekoa	1.630	942	1.470	1.978	2.026	1.878

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Azkenik, sinatutako kontratuak %2,2 areagotu ziren 2011n, aurreko urteko emaitzekin (%5,6) alderatuta moteltzeko joera arina erakutsiz. Igoera horren oinarrian, aldi baterako kontratuen goranzko bilakaera (%2,9) dago, mugagabeko kontratuak balio negatibotan (%-13,3) jarraitu zutelako. Emaitza horien ondorioz, aldi baterako kontratazioak kontratu guztien %97 bereganatu zuen eta, beraz, 2010eko uztailean indarrean sartu zen lan erreformaren ondoren ere aldibaterakotasuna igo zen. Aldi berean, mugagabeko kontratuak historikoki apalak diren mailetan kokatu ziren eta kontratazio mota horretako modalitate guztiek behera egin zuten 2011. urtean.

**ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA**

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2011	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<b>Guztira</b>	<b>704.152</b>	<b>3,1</b>	<b>4,1</b>	<b>-5,2</b>	<b>-17,8</b>	<b>5,6</b>	<b>2,2</b>
Lanaldi osoko mugagabeak	14.838	9,4	31,3	-8,7	-32,0	-7,3	-13,4
Obra edo zerbitzukoak	152.614	-0,1	0,7	-11,4	-21,1	8,1	4,0
Abagunekoak	170.103	3,2	5,1	-9,4	-28,0	11,1	-2,9
Lanaldi laburrekoak	246.635	2,9	3,3	-1,3	-9,7	5,0	5,0
Prestakuntzakoak (*)	5.367	0,7	-4,2	-13,0	-37,7	8,1	2,7
Gainontzekoak	114.595	8,8	4,8	7,9	-6,6	-1,9	4,8

(\*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoa (SEPE).

### Prezioak, kostuak eta soldatak

Oro har, prezioek gehikuntza tasa nabarmenak jaso zituzten 2011. urtean aurreko urteko mailarekiko, baina urtea aurrera zihoan neurrian gorakada hori zuzenduz joan zen, ekonomiaren hazkundera moteltzen ari zelako eta, ondorioz, eskariak behera egin zuelako. Eskaeren ahultasun gero eta nabarmenagoak enpresak salneurriak egokitzera behartu zituen, salmentei eusteko ahaleginean.

BPGaren deflatoea, prezioen gainontzeko adierazleak ez bezala, ez zen areagotu aurreko urteko emaitzaren aldean eta 2010eko datu bera jaso zuen, %1,6, hain zuzen ere. Beste urte batez, prezioen hazkundera neurritsuagoa izan zen barne ekoizpenean eta, horren ondorioz, inflazioaren zati bat inportazioen bidez iritsi zen. Izan ere, barne eskariaren deflatoea %2,0 hazi zen, inportazioko salneurriek %3,5eko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuten bitartean, energiaren garestitzeak kaltetuta. Azkenik, esportazioen deflatoea nabarmen moteldu zen eta %3,1 gehitu zen, merkatu kuotarik ez galtzeko ahalegin batean. Tasa hori azken urteetako baliorik txikienetako bat da.

#### DEFLATOREEN BILAKAERA

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<b>BPGren deflatoea</b>	<b>3,3</b>	<b>3,2</b>	<b>0,9</b>	<b>-1,6</b>	<b>1,6</b>	<b>1,6</b>
Barne eskariaren deflatoea	3,8	2,9	2,2	-0,1	1,2	2,0
Esportazioen deflatoea	3,8	3,5	4,5	-8,3	4,2	3,1
Inportazioen deflatoea	4,5	3,0	6,1	-5,5	3,3	3,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

Kontsumoko prezioei dagokienez, 2011ko batez besteko gehikuntza tasa aurreko urtekoa baino puntu bat eta lau hamarren handiagoa izan zen (%3,1 eta %1,7, hurrenez hurren), petrolioaren salneurriek nazioarteko merkatuetan izan zuten ezusteko gorakada biziaren ondorioz. Zehatz-mehatz, petrolio gordina 92 dolarretan saltzen zen 2010eko abenduan eta lau hilabete beranduago upelaren prezioa 123 dolarretan zegoen, geroztik zuzenketa leun bati ekiteko eta urte amaieran 108 dolarretan saltzeko.



Petrolioaren salneurriak 2011. urtean zehar izan zuen bilakaerak KPIaren hilekoz hilekoko norabidea baldintzatu zuen. Izan ere, urte hasieran indize orokorra %3,7an kokatzera iritsi zen apirilean eta geroztik moteltzeko joera hauteman zen urte arteko gehikuntzetan, abenduan %2,4an kokatu arte eta 2012ko udaberrian %2,0ra jaitsiz. Petrolio gordinaren salneurriaren bilakaeraz gain, inflazioaren moteltze hori azaltzen duten arrazoien artean, eskariaren ahultasuna gero eta garbiagoa eta 2010ean onartu ziren hainbat igoeraren eragina, hala nola tabakoarena, desagertu izana aipatu behar dira.

Ikuspegi bananduago batean, adierazi behar da KPIaren 2011ko hazkundera talde berezi guztietan hauteman zela, aurreko urtekoak baino urte arteko gehikuntza tasa handiagoak jaso zituztelako. Hain zuzen ere, herrialde ekoizle nagusi batzuetan jaso ziren uzta urriek elikagaien salneurria gorarazi zuten. Energiatz bestelako industria ondasunen prezioek, berriz, beren hazkunde erritmoa areagotu zuten, Estatu barruko ekoizpenaren prezioak handitu zirelako eta ondasun mota horretako inportazioen salneurriak garestiak zirelako, lehengaien garestitzeak baldintzatuta. Hala eta guztiz ere, industriaren ondasunek KPIaren prezio igoera apalenak jaso zituzten berriro. Azkenik, zerbitzuek ere goranzko joera erakutsi zuten, elikagaien garestitzea haien prezioetara igaro zelako, dagoeneko aipatua izan den energiako prezioen hazkundearengatik eta 2010eko uztalean indarrean sartu zen BEZ zergaren igoerak utzi zituen eraginarengatik, urte arteko alderaketa egiteko orduan eragina izan zuelako urtearen zati handi batean.

### KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2007	2008	2009	2010	2011	Ekarpena
<b>Inflazioa guztira (%100)</b>	<b>2,8</b>	<b>4,1</b>	<b>0,3</b>	<b>1,7</b>	<b>3,1</b>	<b>3,1</b>
<b>Azpiko inflazioa (%83,5)</b>	<b>2,8</b>	<b>3,2</b>	<b>1,1</b>	<b>0,7</b>	<b>1,8</b>	<b>1,5</b>
KPI Landutako elikagaiak (%13,4)	4,0	6,6	1,2	0,7	3,8	0,5
KPI Industriako ondasunak (%28,4)	0,7	0,6	-0,9	-0,2	0,7	0,2
KPI Zerbitzuak (%41,7)	3,9	3,9	2,5	1,4	2,0	0,8
<b>Hondarreko inflazioa (%16,5)</b>	<b>3,0</b>	<b>8,5</b>	<b>-3,6</b>	<b>6,6</b>	<b>9,5</b>	<b>1,6</b>
KPI Landugabeko elikagaiak (%6,8)	4,2	5,0	0,2	0,2	1,5	0,1
KPI Energia (%9,7)	1,9	11,6	-7,3	11,5	15,3	1,5

Iturria: INE.

## 2011ko urteko txostena

Petrolioaren garestitzeak 2011ko prezioen bilakaeran izan zuen garrantzia islatuta geratu da, alde batetik, indizearen produktu egonkorrenak jaso zituzten balioetan eta, beste aldetik, gorabehera handienak izaten dituztenetan. Izan ere, azken hauek %9,5eko gehikuntza ezagutu zuten batez beste, azken urteetako daturik gorena baita, energiaren atalak izan zuen %15,3ko garestitzeak baldintzatuta. Petrolioaz gain, argindarrak ere gehikuntza tasa garrantzitsuak izan zituen 2011. urtean. Beste aldetik, azpiko inflazioak batez besteko igoera nabarmen txikiagoa (%1,8) erakutsi zuen, aurreko bi urteko balioak gaintitu zituen arren, neurri batean BEZaren igoeraren eraginagatik. Dena dela, datu hori Europako Banku Zentralak inflazio neurritsutzat jotzen duen balio tartean dago kokatuta. Are gehiago, urte amaieran azpiko inflazioak moteltzeko joera erakutsi zuen.

### EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<b>Indize orokorra</b>	<b>3,4</b>	<b>2,8</b>	<b>4,1</b>	<b>0,3</b>	<b>1,7</b>	<b>3,1</b>
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,1	3,8	6,3	-0,1	-0,7	2,2
- Edari alkoholodunak eta tabakoa	2,0	6,6	4,0	8,4	10,7	9,8
- Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,4	0,7	-1,4	-0,2	0,3
- Etxebizitza	6,3	3,6	6,4	1,9	3,1	7,8
- Etxeko hornidura	3,0	3,5	3,0	1,8	0,9	1,5
- Medikuntza	1,9	-0,5	-0,1	-0,2	-0,1	-0,6
- Garraioa	4,3	2,3	5,7	-5,3	6,5	7,7
- Komunikazioak	-1,3	0,2	0,0	-0,6	-0,7	-0,8
- Aisia eta kultura	0,4	-0,9	0,3	0,3	-0,9	0,3
- Irakaskuntza	4,5	4,5	4,7	4,2	2,2	1,3
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	3,9	4,6	4,6	2,4	1,7	1,7
- Besteak	3,0	3,2	3,4	2,5	2,1	2,7

Iturria: INE.

KPI indizea osatzen duten produktu taldeen analisiaren arabera, inflazioaren 2011ko igoera bost taldetan bakarrik gauzatu zen, horiek izan baitziren Europako Banku Zentralak prezioen egonkortasunerako ezarri duen erreferentzia gaintitu zutenak. Berrero ere, garraioa eta etxebizitza taldeak izan ziren urteko hazkunderik gorenak jaso zituztenak, petrolioaren salneurriaren bilakaerari oso lotuta daudelako. Hala ere, bi hauek baino askoz ere gehiago


garestitu zen edari alkoholdunak eta tabakoa biltzen duen taldea, tabakoaren gaineko zerga bereziaren igoerengatik. Aipatu diren hiru talde horietatik oso urrun kokatu ziren besteak izeneko taldea (%2,7) eta janariak eta alkoholik gabeko edariak (%2,2), hauek ere igoera garrantzitsuekin.

Beste muturrean, beherakadak jaso ziren berriro komunikazioen eta osasun zerbitzuen prezioetan, azken talde horretan botika generikoak gehiago erabili zirelako, marka jakin batekoak baino merkeagoak baitira. Beste talde batzuek ere, hala nola jantziak eta oinetakoak, eta aisia eta kultura, ahalegin handiak egin zituzten prezioak gutxi igotzeko (%0,3), baina ez zituzten jaitsi, aurreko urtean egin zuten bezala.


Kontu jakina da energiako ekoizkinen aldakuntzek eragin handiagoa dutela Espainian Europako batez bestean baino, energia mendekotasuna handiagoa delako eta prezioaren osiera ezberdina delako. Horrek argitzen du EAEk Europar Batasunarekiko 2010ean lortu zuen diferentzial positiboa zergatik desagertu zen 2011n. Orobat, Eurogunearrekiko inflazio tartea lau hamarrenetara zabaldu zen, eremu horretako inflazioa %2,7an kokatu zelako. Hala ere, hilabeteak aurrera zihoazen neurrian eta petrolioaren garestitzea zuzendu zen heinean, diferentziala EAEko ekonomiaren aldeko bihurtu zen.

### KPIren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

EAE



Europar Batasuna




Iturria: INE eta Eurostat.

## 2011ko urteko txostena

Energiaren osagaiak lurralde batean eta bestean daukan eragin ezberdina azpiko inflazioaren analisisian hautematen da. Hain zuzen ere, EAEko KPIaren indize orokorrak Europar Batasuneko berdindu zuen arren, energiaren ekoizkinak eta elikagai freskoak kentzen direnean, emaitza autonomia erkidegoaren aldekoa da oraindik (%1,8 Europako %2,1aren aldean), nahiz eta aurreko urtekoa baino txikiagoa den.


### Azpiko inflazioaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: INE eta Eustat.

Produktu motaren arabera, begi bistakoa da EAEren eta Eurogunearen arteko aldeak prezioen bilakaeran hiru taldetan fokatu direla: edari alkoholduak eta tabakoan (6,3 puntuko aldea dago), etxebizitzan (2,9 puntu) eta garraioan (%2,2). Lehen taldeak aipatua izan den eta aurreko hilekoetan ezarri zen tabakoaren gaineko zerga igoera nabaritu zuen. Etxebizitzak, berriz, argindarraren garestitzea eta berogailuetarako gasolioarena barneratu zituen bere prezioetan. Azkenik, erregaien bilakaerak garraioa taldeko diferentziala positiboa eta garrantzitsua izaten jarrai zezala eragin zuen. Beste muturrean, Europan baino gutxiago garestitu ziren taldeen artean, osasun zerbitzuen bilakaera azpimarratu behar da (-2,2 puntu), botika generikoei eman zaien bultzadak beherakada hori eragin baitu.

## EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tartea. 2011eko batez besteko balioak



Iturria: INE eta Eurostat.

Industriako prezioen bilakaerari dagokionez, 2011. urtean portaera inflaziogilea erakutsi zuten, azken urteetako hazkunde tasarik gorena (%7,6) jaso zutelako. Kontsumoko prezioekin gertatu zen bezala, igoera handienak urte hasierako hilabeteetan gauzatu ziren, urtea aurrera zihoan heinean balio apalagoak jasotzeko. Adierazle honetan ere azpimarratu behar da energia ekoizkinen eragina, bereziki petrolioarena, industriako salneurriak gorantz bultzatu zuen faktore nagusia izan zelako. Hain zuzen ere, energiaren taldeak %21,9 igo zuen bere prezioa urteko batez bestean.

Neurri txikiagoan, baina hau ere nabarmendu beharrekoa da, lehengaien salneurrien bilakaerak eragin garrantzitsua izan zuen industriako prezioen osieran, bereziki bitarteko ondasunen atalean (%6,2), aurreko urteko igoera (%3,1) bikoiztu zuelako. Gainontzeko taldeek aurreko bi urtekoak baino balio nabarmen handiagoak jaso zituzten. Hain zuzen ere, ekipamendurako ondasunak %2,1 garestitu ziren, kontsumoko ondasunek %2,4ko igoera izan zuten bitartean, kontsumo iragankorreko ondasunen garestitzearengatik (%3,1). KPIan baino gutxiago, baina 2010eko bigarren seihilekoan onartu ziren zerga aldaketek industriako ekoizkinetan ere eragina izan zuten.

## 2011ko urteko txostena

### EAE-KO INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2007	2008	2009	2010	2011
<b>Indize orokorra</b>	<b>4,9</b>	<b>5,5</b>	<b>-6,0</b>	<b>3,3</b>	<b>7,6</b>
- Kontsumoko ondasunak	3,5	4,2	0,5	0,2	2,4
- Kontsumo iraunkorrak	1,5	3,0	0,2	-0,5	0,5
- Kontsumo iragankorrak	4,4	4,7	0,6	0,5	3,1
- Ekipamendu ondasunak	3,8	2,6	1,3	0,1	2,1
- Bitarteko ondasunak	7,1	3,8	-7,9	3,1	6,2
- Energia	1,2	15,7	-14,6	11,7	21,9

Iturria: Eustat.


### Lan kostuen bilakaera langile bakoitzeko

Urte arteko aldakuntza tasak

Euskadi



Espainia



Iturria: INE.

Lan kostuei dagokienez, azken urteetan erakutsi zuten beheranzko joerari jarraipena eman zioten, enplegua gutxitzeko testuinguru batean. Jaitsiera hori soldaten kostuaren bilakaeran oinarritu zen, 2010ean %2,0 hazi eta gero 2011n %0,2 baino ez baitzen igo, soldata publikoetan gauzatu zen politika hertsiaeren ondorioz. Beste kostuak, berriz, nabarmen hazi ziren (%-0,4tik %1,9ra), gero eta handiagoak ziren irazte ordainketek gorantz bultzatuta. Hala

eta guztiz ere, batez besteko kostuaren ia hiru laurdenak soldata kostuek bereganatzen dute. Horren ondorioz, lan kostuen nondik norakoa soldata kostuen bilakaerak baldintzatzen du bereziki.

Azkenik, adierazi behar da gaur eguneko koiuntura ekonomikoan negoziazio kolektiboaren prozesuak zailak direla, eta hitzarmen baten eraginpean dauden langileen kopurua, aurreko urtearen aldean igo bazen zen (170.182 langile 2011n eta 149.536 bakarrik 2010ean), oso urrun dagoela aurreko ekitaldian zeuden balioetatik. Beraz, soldaten igoerak neurtzeko modu horrek adierazgarritasuna galdu du. Horrek azaltzen du lan kostuen inkestan estimatu zen moteltzearen aurrean (%0,2) negoziazio kolektiboan adostutako gehikuntzak (%3,6) zergatik izan ziren KPIaren igoera baino askoz ere handiagoak. Hala urte askotarikoek nola 2011n sinatutakoek %3,0tik gorako igoerak adostu zituzten. Orobat, sektoreko eta enpresako hitzarmenek zenbateko horretatik gorako balioak jaso zituzten.

### HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<b>Indarrean dauden hitzarmenak</b>	<b>4,9</b>	<b>4,2</b>	<b>5,0</b>	<b>2,7</b>	<b>1,9</b>	<b>3,6</b>
- Urtean zehar sinatutakoak	5,0	4,1	4,8	2,8	1,7	3,4
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	5,0	4,2	5,2	2,8	1,7	3,8
- Enpresako hitzarmenak	4,1	4,2	4,1	2,6	2,4	3,1

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

## Arlo publikoa

2011. urtean, administrazio publikoek ahalegin handia egin zuten aurrekontuak orekatzeko, finantzaz bestelako saldoak agerian uzten duenez. Izan ere, adierazle horrek erdira iristen ez den balio batera murriztu zuen aurreko datu negatiboa, 1.751 milioi eurotik 828 milioi eurora. Saldo negatiboaren murrizketa horren atzean diru sarreren gorakada eta gastuen beherakada daude.

## 2011ko urteko txostena

Eragiketa arruntei dagokienez, diru sarrerak %3,9 areagotu ziren, ekonomiaren susperraldi leunari eta zerga batzuen goranzko aldaketei esker. Gastu arruntak, berriz, %1,8 igo ziren, aurreko urteko jaitsieraren ondoren. Gastu horien barruan, langileen gastuak berriro gutxitu ziren, funtzionarioen soldatak gutxitu zirelako eta langileak ordezkatzeko orduan mugak jarri zirelako. Beste aldetik, funtzionamenduko gastuak ia ez ziren aldatu aurreko urteko mailaren aldean. Aitzitik, finantzazioko gastuak izan ziren, aurreko urtean bezala, gehien hazi zirenak (%70,9), arlo publikoaren zorpetze handiagoaren ondorioz. Transferentzia arruntek ere gehikuntza tasa bat (%2,3) jaso zuten, bi urtez jarraian jaitsierak jaso eta gero. Aurreko guztiarengatik, eragiketa arrunten saldoa positiboa izan zen eta oso nabarmen igo zen aurreko urteko emaitzaren aldean.

### EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUKO ERAGIKETAK

Mila euro

	2011	Urte arteko aldakuntza (%)					
		2006	2007	2008	2009	2010	2011
1. SARRERA ARRUNTAK	13.311.335	11,2	11,5	-5,2	-9,9	2,5	3,9
2. GASTU ARRUNTAK	12.698.066	8,8	10,1	8,1	3,2	-2,8	1,8
Langileen gastuak	2.257.491	5,7	8,1	7,7	6,3	-0,6	-0,5
Funtzionamenduko gastuak	3.844.670	10,6	12,6	11,6	10,4	-0,3	0,1
Finantza gastuak	220.037	-13,5	-20,5	-5,3	1,3	79,5	70,9
Transferentzia arruntak	6.375.868	9,4	10,1	6,6	-1,5	-6,0	2,3
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	613.270	21,9	16,9	-54,1	-123,7	99,8	81,4
4. KAPITALEKO SARRERAK	340.500	-22,4	-33,2	54,4	16,0	84,8	54,9
5. KAPITALEKO GASTUAK	1.782.110	11,1	11,1	15,0	14,0	-1,1	-22,8
Inbertsio errealak	859.065	7,0	10,4	6,5	4,7	-1,0	-13,2
Kapitaleko transferentziak	923.046	15,7	11,8	23,7	22,2	-1,1	-30,0
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-1.441.610	-14,3	-14,0	-13,4	-13,9	5,7	31,0
7. FINANTZAZ BESTELAKO SALDOA (3+6)	-828.340	33,4	20,7	-137,1	-392,7	31,5	52,7

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

Baina 2011. urteko aurrekontuaren ezaugarri azpimarragarrienak kapitaleko ataletan hautematen dira, gastuen murrizketa ia osoa bertan gauzatu zelako. Izan ere, diru sarrerak %54,9 emendatu ziren bitartean, kapitaleko gastuak %22,8 murriztu ziren, hots, 527 milioi eurotik hurbileko murrizketa bat lortu zen atal horretan. Horren ondorioz, kapitaleko



eragiketen saldoa 647 milioi eurotan zuzendu zen eta finantzaz bestelako eragiketen saldoa 2010ekoa baino ia 923 milioi txikiagoa izan zen.

Diru bilketari dagokionez, 2011. urtean itunpeko zergen bidez 11.480 milioi euro bildu ziren, hots, aurreko urtean jasotakoa baino %1,9 gutxiago. Diru kopuru hori EAEko barne produktu gordin nominalaren %17,2 da. Hori horrela izanda, diru bilketak behera egin du azken lau urtetako hirutan –salbuespena 2010. urtea izan zen- eta 2005. urtean lortu zen kopurutik hurbil kokatu zen. Hala eta guztiz ere, 2010 eta 2011 urteetako datuetan Rover kasuagatik jaso ziren eta ondorengo ebazpenagatik itzuli ziren diru kopuruak ez badira kontuan hartzen, 2011ko diru bilketa positiboa baina oso txikia izango zen.

Zerga talde handien arabera, bilakaera onena zuzeneko zergek erakutsi zuten, oro har %7,3 areagotu zutelako beren diru bilketa 2011. urtean. Hala PFEZk nola sozietateen gaineko zergak nabarmen hobetu zituzten aurreko urteko datuak. Lehen kasuan, diru bilketa %6,3 igo zen, urtean zehar lanpostu asko galdu baziren ere. Lanaren etekinen gaineko atxikipenak %3,2 handitu ziren, baina kuota diferentzial garbiaren hobekuntza (%17,7) izan zen igoera horri ekarpen handiena egin zion osagaia. Zerga horren emaitza onaren oinarrian 400 euroko kenketa kasu batzuetan desagertu izana eta araudian onartu ziren beste aldaketa batzuk zeuden.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, diru bilketa %17,5 hazi zen 2011n, hiru urtez jarraian beherakada handiak jaso eta gero. Aurreko urteetan enpresek foru aldundiekin ordainketak geroratzeko egin zituzten akordioek ekonomiaren hazkundeak pentsarazten zuena baino diru gehiago biltzea ahalbidetu zuen, zeren eta barne produktu gordin nominala %2,3 baino ez baitzen hazi urte horretan.

Hala eta guztiz ere, 2011ko diru bilketaren datu deigarriena balio erantsiaren zergak bildu zuen diruarena da. Hain zuzen ere, 2010eko erdialdean onartu zen tipoen igoeraren ondoren, pentsatzekoa zen zerga horren diru bilketak balio positiboa lortuko zuela 2011. urtean ere. Hala ere, azken emaitza %10,9ko beherakada bat izan zen. Jaitsiera horren zati handi bat lehenago aipatu den Rover enpresaren efektuak eragin zuen, baina ezohiko diru sarrera hori zuzenduta ere, BEZak %2,9 gutxiago bilduko zuen. Kontsumoaren ahultasuna eta etxebizitzaren salmentaren beherakada sakona dira sarreraren jaitsiera horren atzean dauden arrazoiak batzuk.

## 2011ko urteko txostena

### ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA

Mila euro

	Zergak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2011	2006	2007	2008	2009	2010	2011
PFEZ	4.321.226	10,3	13,6	4,5	-12,1	3,8	6,3
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	4.448.414	8,7	7,6	7,0	-3,6	3,4	3,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	217.844	13,7	56,2	31,6	-14,7	-15,6	-3,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	85.191	8,3	27,1	70,6	13,4	2,7	3,1
- Ondare irabazien atxikipenak	14.780	35,7	90,2	-1,0	-56,3	4,8	-19,0
- Profesionalen eta enpresariaren ordainketa zatikatuak	154.521	5,9	4,0	-4,4	-6,4	-1,5	-3,6
- Kuota diferentzial garbia	-599.524	3,7	27,8	-67,4	-68,5	6,1	17,7
Sozietateen gaineko zerga	1.160.259	17,5	20,2	-16,8	-27,2	-19,9	17,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	217.844	13,7	56,2	31,6	-14,7	-15,6	-3,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	85.191	8,3	27,1	70,6	13,4	2,7	3,1
- Ondare irabazien atxikipenak	14.780	35,7	90,2	-1,0	-56,3	4,8	-19,0
- Kuota diferentzial garbia	842.443	17,9	15,4	-26,0	-31,6	-23,7	27,3
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	82.099	53,3	149,2	6,7	-39,4	15,6	-37,5
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	77.145	-3,5	-0,2	7,4	-2,1	-11,9	9,4
Ondarearen gaineko zerga	3.432	18,8	21,4	17,5	-72,6	-92,7	-5,8
<b>ZUZENAKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>5.644.160</b>	<b>12,7</b>	<b>17,2</b>	<b>-1,6</b>	<b>-18,3</b>	<b>-2,5</b>	<b>7,3</b>
BEZaren bertoko kudeaketa	3.099.727	16,5	5,7	-13,3	-13,0	26,1	-10,9
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	98.531	19,7	1,1	-50,3	-17,7	28,0	-49,4
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	58.475	18,4	-1,3	-14,3	-17,6	-15,0	-27,8
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	24.753	8,4	9,5	-36,1	-24,5	-7,6	-27,9
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.381.047	5,3	6,4	-0,3	-1,4	2,1	-8,3
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	48.350	5,2	3,7	2,1	-3,1	-4,2	-1,9
Aseguru sarien gaineko zerga	77.383	1,4	8,6	-1,3	-5,5	4,3	1,8
<b>ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>4.788.276</b>	<b>13,2</b>	<b>5,4</b>	<b>-12,4</b>	<b>-9,8</b>	<b>16,7</b>	<b>-11,7</b>
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>110.172</b>	<b>-1,6</b>	<b>14,3</b>	<b>-4,0</b>	<b>-11,2</b>	<b>9,1</b>	<b>0,1</b>
<b>BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK</b>	<b>10.542.608</b>	<b>12,8</b>	<b>11,4</b>	<b>-6,6</b>	<b>-14,6</b>	<b>6,4</b>	<b>-2,3</b>
BEZaren doikuntza	997.640	-0,3	-2,7	-7,2	-29,6	34,9	-3,8
Zerga berezian doikuntza	-59.335	-7,1	-90,8	-15,5	7,3	-9,4	52,6
<b>ITUNDUTAKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>11.480.913</b>	<b>11,4</b>	<b>9,7</b>	<b>-6,8</b>	<b>-15,9</b>	<b>8,4</b>	<b>-1,9</b>

Iturria: Foru Aldundiak.

Azkenik, fabrikazioaren zerga bereziek ere gutxiago bildu zuten (%-8,3), baina balio negatiboak jaso zituzten beste urteetan ez bezala, oraingoan talde horretako zerga guztiek tasa

negatiboak izan zituzten ekitaldia amaitu zenean. Izan ere, hidrokarburoek erregaien kontsumoak izan zuen beherakada nabaritu zuten. Tabakoari dagokionez, zigarretaren batez besteko garestitzeak ez zuen konpentsatu kontsumoaren jaitsiera. Eskariaren ahultasuna argindarraren zergan ere hauteman zen, hau ere eremu negatiboan kokatu baitzen.


### Finantza arloa

Nazioarteko finantza merkatuek ezin izan zuten ekonomiaren ezegonkortasuna saihestu eta ziurgabetasunaren igoera nabaritu zuten, Ekialde Ertainean eta Afrikako iparraldean zeuden tentsio geopolitikoaren okerragotzeak, Japoniako lurrikarak eta lehengaien garestitze biziak eraginda. Hala eta guztiz ere, merkatuaren nondik norakoa gehien baldintzatu zuen gertakaria Europako zor subiranoaren krisiaren bilakaera izan zen, 2010ean hasi zena eta 2011. urtean oso nabarmen areagotu zena. Ziurgabetasuneko fase hau, 2010ean bizi zena ez bezala, ez zen mugatu desoreka ekonomiko handienak zituzten herrialdeetara eta Euroguneko beste ekonomia batzuetara ere hedatu zen, arrisku sarien gorakada handiak eta burtsa indizeen beherakada garrantzitsuak eraginez. Truke merkatuak berak ere pairatu zuen zurrumbiloko etapa hau.

Izan ere, zor subiranoaren krisiak Euroguneko hamazazpi kideetatik hamar kaltetu zituen, nahiz eta intentsitatea oso ezberdina izan zen. Hori horrela, lehen talde batean herrialde erreskatatuak kokatu ziren, hots, Portugal, Irlanda eta, bereziki, Grezia, zeinaren diferentziala Alemaniako *bund*-arekiko 3.640 oinarrizko puntutik gorakoa izatera iritsi baitzen. Txipre, %10etik gorako errentagarritasuna baitzuen, talde horretakotzat jo daiteke. Ondoren, Espainia eta Italia kokatu ziren, kredituaren kalitatea jaitsia zutenez eta berregituraketa fiskalaren prozesuak sinesgarritasun gutxi eragin zuenez, beren diferentzialak oso bizkor areagotu baitziren. Hain zuzen ere, diferentzial horiek, hurrenez hurren, 460 puntuak eta 500 puntuak gainditu zituzten, Europako Banku Zentralaren esku hartzea behartuz diferentzial horiek kontrolatzeko. Azkenik, herrialde horiei gehitu zitzaizkien Belgika (360 puntu), Eslovakia (200 puntu), Austria (185 puntu) eta Frantzia, non greziar eta italiar zor publiko erosi zuenez diferentziala 190 puntura igo baitzen. Azken talde horren gainkostuak gainontzeko herrialdeetakoekin alderatuta oso handiak ez badira ere, urte osoan zehar 100 puntu baino gehiago areagotu ziren.

## 2011ko urteko txostena

### Bund alemaniarrekiko gainkostua Ehunekoak



Iturria: Espainiako Bankua.

Esku hartze tipoei dagokienez, oso bestelakoak izan ziren Erreserba Federalak, Ingalaterrako Bankuak eta Japoniako Bankuak, alde batetik, erakutsi zuten norabide sendoa eta Europako Banku Zentralak, beste aldetik, eman zuen erantzuna, oso kezkatuta inflazioaren presioengatik. Hain zuzen ere, lehenengo taldean enplegua sortzeko ekonomia jarduera bultzatzeari lehentasuna eman zitzaion bitartean, EBZk inflazioaren kontrolean jarri zuen arreta. Hori dela eta, AEBetan, Ingalaterran eta Japonian erreferentzia tasak bere horretan eta inoizko maila

apalenetan (hurrenez hurren, %0aren eta %025aren artean, %0,5ean eta %0,1ean) utzi zituzten, EBZk, inflazioaren arriskuak kezkatuta, erreferentzia tasa 50 oinarri puntutan igo zuen bitartean, %1,5ean utzi arte. Hala ere, 2011ko amaieran eta EBZren arduradunak aldatuta, garrantzia gehiago eman zitzaion ekonomiaren egoera zailari eta bi aldiz jaitsi zen erreferentzia tasa, berriro %1,0an kokatu arte. Aipatuak izan diren ekonomia eremu guztiek aparteko eta ezohiko neurriei jarraipena eman zieten ekonomia jarduera bultzatzeko eta merkatuetan likidezia sartzeko (zor publikoaren erosketak, finantzaziorako baldintzak errazteko egitasmoak, likidezia enkante mugagabeak,...).

Aitzitik, inflazioaren presioak etengabe areagotu zirenez, garapen bidean dauden herrialdeen banku zentralak moneta politika murriztaileak garatzera behartuta zeuden, kredituaren hazkundera kontrolatzeko eta ekonomiaren gehiegizko berotzea saihesteko. Azpimarragarriak dira Txinako banku zentralak onartu zituen gehikuntzak, bertako erreferentzia tasa %6,56ean kokatu zuelako, eta Indiako banku zentralarenak, herrialde horretako tasa %8,25era igo zuelako.


Banku zentralen jarduerak eta inbertitzaileek arriskua saihesteko erakutsi zuten joera handiagoak dibisa merkatuetako gorakadak eta beherakadak areagotu zituzten. Balioa irabazteko testuinguru batean, euroaren eta dolarraren arteko truke tasak gorabehera handiak bizi zituen. Zor subiranoaren krisiak okerrera egin izanak, Euroguneko gainontzeko herrialdeak kutsatzeko beldurrak eta AEBetako legezko zorraren mugak zeukan egoera kezkagarriak edo kalifikazio agentzia batzuek herrialde horretako rating-aren jaitsierak euroaren eta dolarraren arteko truke tasak %15 arteko goranzko eta beheranzko mugimenduak izan zezala eragin zuten. Zehazkiago adierazita, euroaren gehienezko balioa 1,49 dolar izan zen eta gutxienekoa, berriz, 1,29 dolar.

Hala eta guztiz ere, gainontzeko dibisen aldean bestelako norabidea erakutsi zuen. Eurogunearen ezegonkortasunak eta estatubatuar ekonomiaren desorekek diru seguruagoetara bultzatu zituzten inbertitzaileak. Hain zuzen ere, yena eta suitzar frankoa babes balio gisa hartuak izan ziren eta balio asko irabazi zuten. Izan ere, bi txanpon horien garestitzea hain handia izan zen, ezen bi herrialde horietako gobernuak esku hartzera behartuta egon baitziren. Suitzako Bankuak frankoaren igoera galgatzea lortu zuen, banku arteko tasa gutxituz. Japoniako gobernuak, berriz, bere diruaren balioa jaisten ahalegindu zen, horretarako yen mordo bat salduz, baina yenaren balioa jaitsi beharrean gehiago igo zen, urte amaieran euro baten truke ia 100 yen ematen zirela. Bi kasuetan, euroarekiko truke tasa gutxienez 41 urtean jaso den garestiena izan zen.


## 2011ko urteko txostena

EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak  
Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera Esterlina



Yena




Iturria: Espainiako Bankua.

Errenta aldakorreko merkatuen bilakaera albiste negatiboek eta arriskua saihesteko nahiaren gehikuntzak baldintzatu zuten, muturreko gorabeherak sortuz eta arreta arrisku gutxiago zuten aktiboetara, hala nola urrera, kalifikazio oneko enpresa bonoetara eta Alemaniako zor publikora, desbideratuz. AEBetako zorraren kalifikazioa jaitsi izana, zor subiranoaren krisiaren bilakaeratik eratorri zen zurrumbilota eta EBZk zor publikoa erosteko egitasmoa berriro erabili izana izan ziren burtsak gehien astindu zituzten gertakariak, baina ekonomiaren datu bakoitzak

beste mugimendu bat eragin zuen burtsetan. Izan ere, Europako merkatuetako burtsek galera garrantzitsuak izan zituzten 2011. urtea amaitu zenean eta hainbat aldiz kokatu ziren urteko baliorik txikienean. Urte osoko balantzean, Eurostoxx-50 indizeak %17 baino gehiago egin zuen behera eta IBEX-35ek, berriz, %13 baino gehiago galdu zuen. Hala ere, AEBetako merkatuak Europan bizi ziren zurrunbiloetatik aldendu ziren eta bai Dow-Jones bai S&P 500 indizeek balioa irabazi zuten, hurrenez hurren %6,0 eta %0,4.

Berankortasunaren igoerak, likidezia lortzeko orduan finantza erakundeek ezarri zituzten zailtasun handiagoek eta EBZk 2011ko lehen erdian esku hartzeko tasa igo izanak diferentzialen gehikuntza eragin zuten eta horrekin batera euriborrarena ere. Zehatz-mehatz, hamabi hilabeterako euriborra %2,01 arte igo zen 2011. urtean. Aurreko urteko datuaren aldean ia zazpi hamarren altuagoa bazen ere, azken hamabi urteko batez bestearen azpitik jarraitu zuen.

### Urte baterako euriborraren bilakaera



Iturria: Espainiako Hipoteka Elkarte.


Espainiako Bankuak bankuen maileguz egiten duen inkestaren arabera, finantzazioko kostuen igoerak (hipotekako eragiketa berrien interes tasa 2010eko %2,66tik 2011ko %3,66ra igo zen, eta kontsumoko eragiketen tasa %7,47tik %9,11ra igaro zen epealdi berean), langabezia tasaren

## 2011ko urteko txostena


hazkundera eta ekonomiaren bilakaeraz zeuden igurikimenek okerrera egin izanak oso nabarmen moteldu zituzten enpresen finantzazio beharrak inbertsio berriak egiteko eta familienak higiezinak eta kontsumoko ondasunak erosteko. Halaber, finantza arloaren benetako egoeraz zegoen ziurgabetasunak eta Espainiako banku sistemaren berregituratze prozesuak banku erakundeek finantzaziorako zeukaten baliabideak murriztu zuten, eskaintza erabilgarria gutxituz. Aurrekoaren ondorioz, kreditu pribatuak %1,5 jaitsi ziren.

### Kredituen eta gordailuen bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainako Bankua.

Jaitsiera horren ondorioz, EAeko arlo pribatuaren zorra 1.277,1 milioi eurotan murriztu zen 2010eko amaieran zegoen kopuruaren aldean, ekonomiaren krisia hasi zenean martxan jarri zen zorpetzea gutxitzeko joera berreskuratuz. Izan ere, zorpetze maila jaitea beharrezkoa da kredituaren hedapeneko garaian ekonomia eragileek izan zituzten maila altuen ondoren. Halaber, ezinbestekoa da bai bankuek mailegu berriak eman ahal izateko bai familiek eta enpresek inbertsio berrietarako baliabideak askatzeko.

Zor pribatua gutxitu bazen ere, berankortasuneko tasak krisi ekonomikoaren eragin negatiboa erakusten jarraitu zuen eta beste gorakada bat izan zuen. Langabeziaren etengabeko gehikuntzak, BJA inkestaren arabera 2011ko amaieran %11,2ra iritsia baitzen, eta



eraikuntzaren krisiak ordaindu gabeko kredituak hazten jarrai zezatela eragin zuten. Hain zuzen ere, krisia hasi zenetik berankortasuneko tasak goranzko joera leuna baina etengabea erakutsi du, 2008ko hasieran zegoen %0,88tik 2011ko amaieran kontabilizatu zen %3,99ra. Lau urteko epealdi laburrean tasa hori ia laukoiztu den arren, berankortasuna txikia zen oraindik, bereziki Espainian jaso zen %7,61arekin alderatzen bada, 1994. urtetik inoiz izan ez zen maila bat delarik. Hala eta guztiz ere, estaldura orokorreko tasa, hots, ordaindu gabekoak estaltzeko erabil daitezkeen funtsak, %67,22 izan zen, beraz, oraingoz, ez dago kaudimen gabeziako arriskurik sisteman.

Azkenik, gordailu pribatuek 2009ko atzeraldiarekin hasi zen beheranzko joerari jarraipena eman zioten. Espainiako ekonomiaren moteltzeak, etorkizunerako dauden aurreikuspen txarrek, finantzaz bestelako enpresen inbertitzeko asmoak gutxitu baitituzte, eta gordailuek eskaintzen duten errentagarritasuna mugatzen duen dekretu-lege berriak oraingo %2,2ko beherakada hau azaltzen dute, gutxienez 30 urtean aurrekaririk gabeko jaitsiera bat baita. Ageriko gordailuek bakarrik lortu zuten hazkunde positiboa, zeren eta bai aurrezkitako gordailuak bai eperakoak nabarmen murriztu baitziren. Eperako ezarpenen murrizketak agerian uzten du EAEko eragileek mesfidantzaz ikusten dutela finantza sistemaren kaudimena eta, beraz, likidezia nahiago dutela.